



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko uztailearen 12a

74 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, mendialdeko abeltzaintzako azpiegiturak finantzatzeko 2.614.000 euroko kreditu berezia ematen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testu bategina egin eta onetsi dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru Legea, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Foru Legea, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (24. or.).
- Foru Legea, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (29. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzei buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (30. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da Gaztelu Plazako aparkalekuko obra zibila geldiaraz dezan. Erretiratutako mozioa (32. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Vianako Printzea Erakunde zuzendari nagusiaren politika kulturala deitoratzen du. Osoko Bilkurak bazter utzia (32. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du ETA irmoki gaitzesten duela, eta agertzen du Alderdiei buruzko Legea aldatzeko indar politikoen arteko adostasunik handiena behar dela. Osoko Bilkurak bazter utzia (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du indar politiko guztiek eskubidea eta bete-beharra daukatela Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean parte hartzeko. Bertan behera utzitako mozioa (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du eskubide eta askatasunen defentsa bermatu egin behar dela. Osoko Bilkurak bazter utzia (33. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da bide eman dezan enbrioi izoztuak enbrioi zelula amak eskuratzeko eta zientzia ikerketak sustatzeko erabiltzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (34. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko (35. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, mendialdeko abeltzaintzako azpiegiturak finantzatzeko 2.614.000 euroko kreditu berezia ematen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, mendialdeko abeltzaintzako azpiegiturak finantzatzeko 2.614.000 euroko kreditu berezia ematen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Legea, mendialdeko abeltzaintzako azpiegiturak finantzatzeko 2.614.000 euroko kreditu berezia ematen duena

Herriak ezin dira batera edo berdin garatu Nafarroa osoan. Horregatik abeltzaintza sektorearen sustapenak balio estrategikoa bereganatu du Nafarroako iparraldeko herriak garatzeko. Izan ere, herrialdeko eremu horretan garrantzi ekonomiko handia du lehen sektorean eta abeltzaintzaren barruan mendialdekoak, lurraldeko eguraldiak eta erliebeak eraginiko zailtasunen ondorioz.

Horregatik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren dirulaguntzei buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen barruan, mendialdea kudeatzen duten toki entitateetarako laguntzen araubide berri eta zabal bat gauzatu da, mendialdeko abeltzaintza hobetu edo handitu beharrez, azpiegitura, hornidura edo zerbitzu publiko batzuen bidez. Horregatik, proposatu da Nafarroako mendialdeko toki entitateetarako dirulaguntza araubide bat sortzea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak Nafarroako herriak garatzeko 2002ko maiatzaren 15ean eman zuen Foru Aginduak biltzen duen Europako Batasuneko arautegiaren arabera, mendialdeko

abeltzaintzari zuzenean loturiko titulartasun eta erabilera publikoko azpiegitura eta hornidura bul-tzatzearren.

Herrilurretan larreak sortu eta hobetzeko uztailaren 2ko 192/2001 Foru Dekretuak izanen du indarra. Foru dekretu horretako dirulaguntzak hartzen ahalko dituzte toki entitate eskudunek, Nafarroako mendialdean badaude eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren 1998ko martxoaren 2ko Foru Aginduan aipatzen badira, betiere dirulaguntzaren xede diren lur edo eraikinen titularrak badira edo horietan jarduteko legezko agiririk badute.

Horrenbestez, behar horiek asetzeko kreditu berezi bat ematen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan xedaturikoarekin bat.

1. artikulua. 2.614.000 euroko kreditu berezi bat ematen da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak mendialdeko toki entitateen abeltzaintza azpiegituren arloan dituen beharrak asetzeko. Kreditu berezi hau 2002rako luzaturiko 2001eko aurrekontuko "Mendialdeko abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" izeneko 711001-71310-7600-713200 kontusail berriari aplikatuko zaio.

2. artikulua. 1. artikuluan aipatzen den kreditu berezia 2002rako luzaturiko 2001eko aurrekontuko "Aplikatu gabeko kreditu luzatuak" izeneko 711000-71320-4700-713202 kontusailaren bizkar finantzatuko da (1.514.000 euro) eta "Entzefalopatia espongiforme kutsagarrirei loturiko transferraztiak" izeneko 711000-71320-7700-713202 kontusailaren bizkar (1.100.000 euro).

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onetsi dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuari legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onetsi dezan baimena ematen dion Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Legea, Nafarroako Gobernuari baimena ematen diona legegintzako foru dekretuaren bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onetsi dezan

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 51. artikulua eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Legeak Nafarroako administrazio publikoaren menpeko polizia kidegoen araubidea ezarri zuen.

Maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeak –Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langile-

entzako neurriei buruzkoa–, uztailaren 5ko 19/2001 Foru Legeak –Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzen zuena–, eta apirilaren 3ko 8/2002 Foru Legeak –Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa– parte batean aldatu dute aipatu polizia kidegoen araubidea.

Beharrezkoa da testu arautzaile bat, gaur egun Nafarroako polizia kidegoetan eragina eta indarra duten lege xedapen guztiak bildu eta modu sistematikoan uztartzen dituen. Horregatik, bada, bidezkoa da Nafarroako Gobernuari baimena ematea legegintzako foru dekretu baten bidez Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onetsi dezan.

Artikulu bakarra. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari lau hilabeteko epean, legegintzako foru dekretuaren bidez, Nafarroako polizia kidegoei buruzko Foru Legearen testuategina egin eta onetsi dezan.

Azken xedapena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Legea, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan xedatzen duenez, Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide eman zaie, Toki ogasunei buruzko Foru Legeak arauturik, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera Nafarroako toki eraentzari berez dagokion gaia baita.

Horrez gain, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 260. eta 261. artikuluek xedatzen dute Toki ogasunek Foru Komunitateko tributuetan parte hartuko dutela.

Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezartzen du, 2. artikuluan, lege honetan ezarritako baliabide ekonomikoak arautzearen helburua hauxe dela: legeek toki entitateei esleitzen dizkien eskumen eta eginkizunak betetzeko behar diren printzipio konstituzionalak, finantza aldetiko autonomia eta askatasuna alegia, benetan bete daitezzen ziurtatzea.

Foru lege honek bere denbora muga du, 2002, 2003 eta 2004. urteak hain zuzen, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru

Legea aldatzen duen irailaren 21eko 20/2001 Foru Legeari jarraikiz.

Foru lege honek, lehenengo eta behin, toki entitateek Nafarroako ogasun publikoan parte hartzeko funtsaren zenbateko osoa ezartzen du eta, ondoren, zenbateko hori handitzeko sistema, transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan. Gehikuntza hori Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumorako Prezioen Indizearen igoera portzentuala adinakoa izanen da, hots, ekainetik ekainera bitarteko adinakoa, urte horietako bakoitzerako, gehi ehuneko bia.

Ekitaldi bakoitzerako esleituriko partaidetzaren zenbatekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 2. idatz-zatian xedaturikoarekin bat banatzen da, transferentzia arruntak, kapital transferentzien eta bestelako laguntzen bidez.

2002. urteko transferentzia arruntak eta bestelako laguntzen zenbatekoari dagokionez, abenduaren 268/1988 Foru Legeak ezartzen du aurrekontuen kargura hurrengo ekitaldira arte geroratu ez daitekeen gasturen bat egin behar eta behar adina dirurik ez dagoenean, eta gainera foru lege honetako xedapenen arabera kreditua handitzerik ez dagoenean, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat igorriko diola Nafarroako Parlamentuari kreditu-gehigarri bat eman dezan.

Transferentzia arruntak, Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legeko 123.3 artikuluan xedaturikoarekin bat, udalen eta kontzejuen artean banatuko dira. Banatzeko formulak zuzentasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu printzipio nagusiak zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Hori horrela, foru lege honek Transferentzia Arruntak Funtsaren banaketa dakar. Toki entitateen gastuaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera banatuko da ehuneko 86 eta gainerako ehuneko 14 zerga bidezko dirusarrerak eta herrilurretako aberastasuna eskuratzeko ahalmena erabiltzeko mailaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera. Zehazkiago, formula berriak bizilagun bakoitzeko gastu arruntaren, haren osaeraren, adinaren arabera sailkatutako populazioaren, langabeziaren, hiri lurzoruen

zabaleraren, zerga ahaleginaren eta herrilurren balio katastralaren arabera ponderaturiko populazio aldagaiak hartzen ditu oinarritzat, hots, lehen aipaturiko legezko aurreikuspenak hartzen ditu kontuan.

Arau honek tratamendu ezberdina du udaletarako eta kontzejuetarako, kasuan kasuko eskumene arabera, udalen eta kontzejuen arteko eskumen eskuordetza eta horren ondoriozko baliabide esleipena deusetan galarazi gabe.

Dena dela, banatzeko formula berriak ez du xede orain arte indarra zuen sistema erabat haustea. Trantsizio prozedura bat du, bermea duena, eta erreferentzia 2001eko ekitaldian jasotakoa da.

Kapital transferentzietan dagokienez, haien banaketa 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzko uztailaren 5eko 16/2001 Foru Legean ezarria da. Betiere Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoari lotua dago.

Funtsa banatzeko azkeneko kapitulari bestelako laguntzak deritzo eta bertan hiru hauek daude sarturik: Lehenbizikoa, Iruñeko Udalarik "Iruñeko Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik dagokion zuzkidura; bigarrena, Nafarroako udalentsako diru konpentsazioa: parte bat 4.001etik 10.000 biztanlerara bitarteko udalerrietan "gastu aplikatuaren arabera ponderatutako biztanleria" delako aldagaiaren alderako konpentsazio gisa, eta gainerakoa 4.001etik 40.000 biztanlerara bitarteko populazioa duten udalei, finantza efizientziaren kontzeptuan; eta hirugarrena, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkargoendako laguntza ekonomikoari buruz dagoen aurreikuspena betetzeko zuzkidura ageri dira.

I. KAPITULUA **Funtsaren kontsignazioa**

1. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

Toki entitateek Nafarroako ogasun publikoaren tributuetan 2002ko ekitaldirako parte hartzeko Funtserako guztira 173.168.096 euroko zuzkidura ezartzen da, Nafarroako aurrekontu orokorretan agertuko dena.

2. artikulua. Funtsaren banaketa.

2002ko ekitaldirako esleituriko partaidetzaren zenbatekoa honelaxe banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 107.262.089 euro.

II. Kapital transferentziak: 46.560.293 euro.

A.- Hiru urteko plana: 42.653.714 euro.

B.- Plan berezia: 3.906.579 euro.

III. Bestelako laguntzak:

A.- Iruñeko Udalarik, Hiriburutza Agiriagatik: 13.560.750 euro.

B.- Nafarroako udalentsako diru konpentsazioa: 5.594.744 euro. Horietatik 1.096.557 euro 4.001etik 10.000 biztanlerara bitarteko udalerrietan "gastu aplikatuaren arabera ponderatutako biztanleria" delako aldagaiaren alderako konpentsazio gisa, eta 4.498.187 euro 4.001etik 40.000 biztanlerara bitarteko populazioa duten udalei, finantza efizientziaren kontzeptuan.

C.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 190.220 euro.

3. artikulua. 2002. urterako kreditu-osagarriak.

Honako kreditu-osagarriak onartzen dira, 2001etik 2002ra luzatutako aurrekontuko kontusail hauetan aplikatutako direnak:

– 5.591.865 euro, "Transferentzia arruntaren funts orokorra" izeneko 212000-21210-4600-912100 kontusailaren kargura.

– 706.959 euro, "Iruñeko Hiriburutza Agiria" izeneko 212000-21210-4600-912103 kontusailaren kargura.

– 291.671 euro, "Nafarroako udalentsako finantza-kompentsazioa" izeneko 212000-21210-4600-912104 kontusailaren kargura.

– 9.917 euro, "Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntza" izeneko 212000-21210-4600-912102 kontusailaren kargura.

4. artikulua. Kreditu-osagarrien finantzabidea.

Aurreko artikuluan aipatutako kreditu-osagarriak, guztira 6.600.412 euro, 2001etik 2002ra luzatutako aurrekontuko kontusail honen kargura izanen dira: "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusaila.

5. artikulua. 2003. eta 2004. urteetarako aurrekontu-kontsignazioa.

1.- 2003. eta 2004. urteetarako Nafarroako aurrekontu orokorretan, toki entitateek Nafarroako ogasun publikoan parte hartzeko funtsaren kontsignazioa honela banatuko da: transferentzia arruntak, kapital transferentziak eta bestelako laguntzak.

2.- Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioa 46.560.293 eurokoa izanen da 2002. urterako. Horietatik 42.653.714 euro hiru urteko planari dagozkio eta 3.906.579 euro plan bereziari. 46.393.328 euro 2003. urterako. Horietatik 42.486.748 euro hiru urteko planari dagozkio eta 3.906.579 euro plan bereziari. 51.838.360 euro 2004. urterako. Horietatik 47.931.781 euro hiru urteko planari dagozkio eta 3.906.579 euro plan bereziari.

Kapital transferentzietan dagokion kontsignazioa kontzeptua sailkatuko da bigarren xedapen gehigarrian aipatutakoaren arabera.

2004. urteko plana hauetan aipatzen diren irizpideei jarraikiz egin eta banatuko da: uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legea, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planari buruzkoa; azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretua, arestian aipatu foru legea garatzen duen Erregelamendua onesten duena; eta uztailaren 5eko 16/2001 Foru Legea, 2001-2003rako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak 2004. urteko obren plana onesten ahal du honako foru lege hau onetsitakoan.

3.- 2003. eta 2004. urteetan transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako aurreikusitako zenbatekoa kontzeptu horietarako 2002. urtean aurreikusitako zenbateko bera izanen da, gehi Nafarroako Foru Komunitateko kontsumorako prezioen indizearen igoeraren portzentajea, urte bakoitza ekainetik ekainera hartuta, eta horretaz gain beste % 2 gehituz.

II. KAPITULUA

Transferentzia arruntan eta bestelako laguntzen esleipena

6. artikulua. Banaketa-formula ezartzeko adierazgarriak.

1. Transferentzia arruntetarako partaidetzaren zenbatekoak oinarritzat hartuko ditu banatzeko formula ezartzeko ondoren aipatzen diren adierazgarriak.

2. Ehuneko 62 banatuko da bizilaguneko gastu arruntaren arabera ponderaturiko populazioarekiko zuzeneko proportzioan. Gastu hori 1994ko eta 1995eko ekitaldietako toki entitateetako kontu bateratuen batez bestekotik lortzen da, populazio tarteen arabera gehiturik, eranskinean ageri den 1. taularen arabera.

3. Ehuneko 24 banatzen da toki enteen gastu arrunt funtzionalak kontuan harturik, gastu arrunt guztiarekiko proportzioan, 1994ko eta 1995eko

ekitaldietako toki entitateen kontu bateratuen batez bestekoaren arabera, eranskinean ageri den 2. taulari jarraikiz.

a) Gastu orokorreko esleiturikoa osakeraren arabera ponderaturiko populazioaren arabera banatuko da. Ponderazio hori faktore hauek bilduz lortzen da:

– Hamar urte honetako populazioaren aldaketa. Ponderazioa aldaketa portzentualaren zati osoa izanen da, eta gehienekoa ehuneko 20.

– 15 bizilagun edo gehiago dituzten populazio entitateen kopurua. Ponderazioa batetik goitiko populazio duten entitateengatik ehuneko 5koa izanen da; gehienekoa ehuneko 20 izanen da.

– Populazio sakabanatua. Ponderazioa udalerriko populazio sakabanatuaren populazio guztiarekiko portzentajearen zati osoa izanen da; gehienekoa ehuneko 20 izanen da.

b) Hezkuntza gastuetarako esleitua banatuko da udalerrri bakoitzean 16 urte edo gutxiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan Foru Komunitatekoaren aldean.

c) Osasun eta gizarte zerbitzuetako gastuetarako esleitua honelaxe banatuko da:

– Ehuneko 40, gastuaren arabera ponderaturiko populazioa kontuan hartuz, artikuluko honetako 2. idatz-zatian agintzen denari jarraikiz.

– Ehuneko 30, udalerrri bakoitzean Enpleguaren Institutu Nazionalean hilerro inskribaturik dauden langabeen urteroko batez bestekoarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko batez bestekoaren aldean.

– Gainerako ehuneko 30, udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko populazio horren aldean.

d) Herrilan eta hirigintza gastuetarako esleitua banatuko da hiri lurzoru garbiarekiko zuzeneko proportzioan. Hori izanen da planoaren araberrako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatiek batuta duten zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko aldearen ondoriozkoa, Foru Komunitatekoaren aldean.

e) Kultura eta kirol gastuetarako esleitua honelaxe banatuko da:

– Ehuneko 70, gastuaren arabera ponderaturiko populazioarekiko zuzeneko proportzioan, foru lege honetako artikuluko honetako 2. idatz-zatian agintzen denari jarraikiz.

– Gainerako ehuneko 30, udalerrri bakoitzean 16 urte edo gutxiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko populazio horren aldean.

4. Transferentzia arrunten gainerako ehuneko 14 zerga bidezko dirusarrerak eta herrilurretako aberastasuna eskuratzeko ahalmena erabiltzeko mailaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera banatuko da. Ondorio horietarako, eragile hauek asignatuko eta kenduko dira, hurrenez hurren:

Ehuneko 15 zerga ahalegin eta presioarekiko zuzeneko proportzioan esleituko da, portzentajeak aurreko kontzeptuei aplikatuz, ezarpen figuren pisuaren arabera, oinarritzat hartuz toki entitateen 1997., 1998. eta 1999.eko ekitaldietako kontuak. Ondorio horietarako, faktore hauek asignatuko eta kenduko dira, hurrenez hurren:

– Ehuneko 11, udal bakoitzaren Nafarroaren batez besteko zerga ahaleginarekiko zuzeneko proportzioan, udalerrri bakoitzeko populazioaren arabera ponderaturik. Zerga ahalegintzat joko da lurralde kontribuzioagatik likidatutako eskubideek duten portzentajea, ordainarazpen horrek legez baimenduriko gehieneko tasa eta errekarquak eta, etxebizitzaren kasuan, merkatuko balioaren zenbatespenak aintzakotzat hartuz lekarkeen dirusarreraren aldean.

– Ehuneko 4, udal bakoitzaren presio fiskalarekiko zuzeneko proportzioan esleituko da. Presio fiskaltzat joko da udal bakoitzaren jarduera ekonomikoengatik likidatutako eskubideek duten portzentajea, Nafarroa osorako zerga horregatik likidatutako eskubideen aldean.

Gainerako ehuneko 1, udal bakoitzaren herrilurretako ondasunen balio katastralarekiko zuzeneko proportzioan murriztuko da, kasuan kasuko udalerrian dauden kontzeju guztienetakoa barne, Foru Komunitateko udal guztienetakoaren aldean.

7. artikulua. 2. artikuluko I. ataleko hasierako esleipena. “Transferentzia arruntak” izenekoa.

1.- Banatzeko formulak, lehengo artikuluan agindutakoaren ondoriozkoak, eranskinean ageri den 3. taulan biltzen diren aldagaiekiko zuzeneko proportzioan esleituko die hasiera batez udalei ekitaldi bakoitzerako transferentzia arrunten funtsa.

2.- Udalerrrian kontzejuak dauzkaten udalen kasuan, aurreko puntuan zehazten den formula aplikatzearen ondorioz udalari dagokion zenbatekoa murriztuko da, hasiera batez kontzeju bakoitzari bi kontzeptu hauen arteko aldea emateko:

a) Kontzeju bakoitzeko hiri lurzoru garbiaren udalerriarekiko proportzioa, aurreko zenbateko ondoriozkoaren ehuneko 29,49, eta

b) Kontzejuko herrilurretako balio katastralaren udalerrri osoarekiko proportzioa, herrilurretako balio katastralagatik udalari murrizturiko zenbatekoari aplikaturik.

3.- Aldagaien balioak lortzeko, eranskinean ageri den 4. taulan aipatzen diren iturburueta joko da.

8. artikulua. Transferentzia arruntei dagokien hasierako asignazioaren bermearen aplikazioa eta horren kalkulua.

1.- Formula honen arabera udal eta kontzeju bakoitzak hartutako asignazioa ez da inoiz izanen 2001. urtean transferentzia arruntengatik jasotakoa baino gutxiago.

2.- Banatzeko formula aplikatzeagatik berme hori lortzen ez dutenek bermea izan dezaten, bermatuak baino diru gehiago lortzen duten udal eta kontzejuei hasiera batez asignaturikoetatik behar diren diru-kopuruak kenduko dira, dagokien bermearen igoerarekiko proportzioan.

9. artikulua. 2. artikuluko III B) atalaren asignazioa, “Nafarroako udalenzako diru konpentsazioa” izenekoa.

1.- 4.001etik 10.000 biztanlera bitarteko udalerrientzako zuzkidura populazioaren arabera banatuko da, zuzeneko proportzioan.

2.- 4.001etik 10.000 biztanlera bitarteko udalerrientzako zuzkidura biztanleria ponderatuaren araberrako proportzioan banatuko da, honela: 4.001 eta 10.000 biztanle bitarteko udaletarako, biztanleriaren proportzioan, biztanleria 1,08ren alderantzizko balioaz ponderatu dela; 10.001 eta 40.000 biztanle bitarteko udaletarako, 1,3ren alderantzizko balioaz ponderatu dela.

10. artikulua. 2. artikuluko III. ataleko gainerako kontzeptuen banaketa (“Bestelako laguntzak”).

1.- Iruñeko Udalari “Iruñeko Hiriburutza Agiria” delakoagatik eman beharrekoari dagokionez, bestelako laguntzen partaidetzaren zenbatekoa abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean xedatutakoaren arabera arautuko (agiri hori ematen duen foru legea)

2.- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa foru lege honetako 11. artikuluan transferentzia arruntetarako aurreikusi bezala ordainduko da.

11. artikulua. Behin betiko asignazioa

Udal eta kontzeju bakoitzari esleituko zaion behin betiko kopurua aurreko artikuluetan ezarritakoa, hots, Nafarroako udalerrindako transferentzia arrunten eta finantza konpentsazioaren ingurukoa, aplikatzearen ondorioz ateratzen dena izanen da.

III. KAPITULUA**Erabiliko diren aldagaiak eta ordainketak.****12. artikulua.** Erabiliko diren aldagaiak.

1.- Funtsa Nafarroako udalerrien artean nola banatuko den kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak ateratzeko, foru lege honen eranskinean ageri diren iturriak erabiliko dira. Aldagaien erreferentzia urtea, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean eskura dauden Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrietako biztanleriaren inguruko azkeneko datu estatistiko ofizialena izanen da. Erreferentzia urte horretako daturik ez bada, hurbilenerako urtekoak hartuko dira.

2.- Artikulu honetako 1. atalean adierazitakoa deusetan galarazi gabe, zerga ahalegina eta presio fiskala kalkulatzeko, toki ogasunei buruzko Foru Legearen arabera Toki Administrazioaren Departamentuan aurkeztu beharreko azken ekitaldiko kontuen espedientetik ateratzen diren aldagaien balioak hartuko dira, edo, bestela, ekitaldi horretako aurrekontuaren likidazio espedientetik ateratzen direnak, Nafarroako toki ogasunei buruzko Foru Legearen 227.2 artikuluan eta lege hori aurrekontuen eta gastu publikoen arloetan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 84. artikuluan adierazi bezala. Hori guztia ezinezkoa bada, beste udal batzuek Toki Administrazioaren Departamentura bidalitako datuak hartuko dira aintzat, eta hortik ateratzen den ahalegin fiskalaren eta presio fiskalaren gutxienerako balioaren % 70 aplikatuko da.

3.- Aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, udal edo kontzejuen banaketa edo elkarketa prozesuak gertatzen direnean, horien ondorioz banaketan kontuan hartu beharreko aldagaien balioak aldatzen badira, aldagaien ondoriozko zenbatekoa birkalkulatuko da, banaketa egiten den unean dagoen administrazio egoerara egokitzeko, betiere administrazio egoera berri horren inguruko datu ofizialik ez badago.

13. artikulua. Ordainketa.

1.- Toki entitateek Nafarroako ogasun publikoaren tributuetan Parte Hartzeko Funtsetik esleitzen den diruaren ordainketa lau zatitan egingen da

ekitaldi bakoitzean; zehazki, hiru hileko bakoitzeko lehenbiziko hamabostaldian.

2.- Lehenbiziko bi ordainketek aurreko ekitaldian jasotakoaren % 25 egingen dute.

3.- Hirugarren ordainketan, toki entitate bakoitzari urte horretan dagokion behin betiko kopurua kalkulatu da eta, aurreko bi ordainketetan jasotatik abiatuz, kalkulatuakoaren % 75era iristeko falta dena ordainduko zaie. Laugarren hiru hilekoan gainerako dirua ordainduko da.

4.- Udalek eta haien barreneko kontzejuek hitzarmena sinatua duten kasuetan, entitate horiendako ordainketak hitzarmenean ezarri bezala egiten ahalko dira, deusetan galarazi gabe banaketarako formula aplikatuz entitate bakoitzari hasiera batean dagokion ekarpenaren zenbatekoa.

IV. KAPITULUA**Kapital-transferentzien esleipena**

14. artikulua. Kapital transferentzietarako diruaren banaketa.

Partaidetza-funtsean kapital transferentzietarako bideraturiko dirua, 2002., 2003. eta 2004. urteetarako hiru urteko planari dagokiona, uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean xedatu bezala banatuko da. Izan ere, haren aplikazio aldia 2004. urtera arte luzatu da.

Partaidetza-funtsean kapital transferentzietarako bideraturiko dirua, 2002., 2003. eta 2004. urteetako plan bereziari dagokiona, uztailaren 5eko 16/2001 Foru Legean eta hori garatzeko arautegian xedatu bezala banatuko da. Hortaz, haren aplikazioaldia 2004. urtera arte luzatu da.

15. artikulua. Hiru urteko planaren 2004. urteko Proiektuaren obra plana nola prestatu.

1.- Hiru urteko planaren 2004. urteko Proiektuaren obra-plana plan zuzentzaileetan ezarritakolari jarraikiz egingen da, plan horietan aurreikusitako obrak sartuz, betiere haien aurrekontuak foru lege honetan finkatutako zuzkidurekin bateragarriak baldin badira.

2.- Toki programazioko azpiegitura obrei dago kienez, 2001-2003 aldirako hiru urteko planean sartuta egon arren, kostu handia zela kausa, zatika egin ziren obrek lehentasuna izanen dute, betiere Nafarroako Gobernuak 2001-2003 aldirako hainbat obra planean sartzeko hartutako erabakiaren bidez onetsitako diru-kopuruaren heren bat, gehienez, egin arte, salbu eta lehenbiziko fasean sartutako azpiegitura amaitzeko falta den obra-zatia munta ekonomiko txikikoa denean,

orduan oso-osorik sartuko baitira. Orobat, zenbait eskaeretan lehenetsita egon arren, eskaera osoaren kostu ekonomiko handia zela kausa obra zati bat baino sartua ez zuten toki entitateen obrak aurreko irizpideari jarraikiz sartuko dira planean.

Gainerako dirua 2001-2003 aldirako toki azpiegituren hiru urteko planean finantzatu gabe gelditu ziren obrak finantzatzeko izanen da, hartan lortutako kalifikazio-ordenaren arabera, baina alde batera utziko dira ezinbestean edo ustekabeen etorri izateagatik finantzatu ziren obrak.

3.- Toki Garapenerako inbertsioak 7/2000 Foru Legean aurreikusitako obra berberei aplikatuko zaizkie.

4.- 2004. urteko planean sartzen diren obrak kudeatu eta burutzeko prozedura 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta horren garapenerako erregelamendua onetsi zuen azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretuan ezarritakoa izanen da, behar diren egokitzapenak eginda.

16. artikulua. Plan bereziaren 2004. urteko Proiektuaren obra plana nola prestatu.

1.- Finantzatu diren obrak hauexek dira: Goi presioko ur horniduraren plan zuzentzailea eta programazio lokalari buruzko obrak, uztailaren

5eko 16/2001 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

2.- 2004. urteko plan bereziko obrak hautatu eta lehenesteko, bakoitzaren ekarpenen araubidea finkatzeko eta plana prestatu, garatu, kudeatu eta burutzeko prozedura, halaber, aipatu foru legean ezarritakoa izanen da.

Toki Programazioko obrei dagokienez, 2001-2003 aldirako Plan Berezian finantzatu ez zirenak hartuko dira aintzat, hartan lorturiko kalifikazioen ordenaren arabera.

3.- Plan honen xede diren toki entitateei dagokienez, foru lege haren eranskinean edo, bestela, Nafarroako Parlamentuak onetsiko duen zerrendan adierazitakoari jarraikiko zaio.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Toki entitateek Nafarroako ogasun publikoaren tributueta parte hartzeko Funtsaren transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak emateko 1999., 2000. eta 2001. urteetan egindako banaketak behin betikoak dira.

Bigarrena. 2001-2004 urteetan, kapital transferentzietarako finkatu den diru-kopurua, eurotan, honako hau da, kontzeptuz kontzeptu:

	2001	2002	2003	2004	Guztira 2001-2004	
	Pezetak (milakotan)	Euroak	Euroak	Euroak	Euroak	
A) Plan zuzentzaileak						
Azterlanak	10.100	60.702	60.702	60.702	60.102	242.208
Goi presioko ur-hornidura	1.177.660	7.077.879	7.077.879	7.077.879	8.137.704	29.371.341
Ibaian arazketa eta saneamendua	707.000	4.249.156	4.249.156	4.249.156	3.906.579	16.654.047
Hondakin solidoak						
Tratamendua	126.250	758.778	758.778	2.797.159	3.606.073	7.920.788
Bilketa	186.850	1.122.991	1.122.991	846.797	1.839.098	4.931.877
Iruñerriko Mankomunitatearen hitzarmena	579.600	3.483.466	5.891.842	2.137.981	–	11.513.289
Hondakin bereziak	–	–	–	1.824.709	300.501	2.125.210
Guztira Plan Zuzentzaileak	2.787.460	16.752.972	19.161.348	18.994.383	17.850.057	72.758.760
B) Programazio lokaleko inbertsioak						
Ur hornidura						
(plan zuzentzaileetan sartu gabea)	15.150	91.053	91.053	91.053	102.173	375.332
Hornidura eta saneamendu sare lokalak	1.313.000	7.891.289	7.891.289	7.891.289	7.813.158	31.487.025
Elektrifikazioak	25.250	151.756	151.756	151.756	144.243	599.511
Kaleko argiteria	227.250	1.365.800	1.365.800	1.365.800	1.562.632	5.660.032
Zola emateak	883.750	5.311.444	5.311.444	5.311.444	17.526.577	33.460.909
Udalen eraikinak	202.000	1.214.044	1.214.044	1.214.044	1.412.379	5.054.511
Hilerriak	101.000	607.022	607.022	607.022	558.942	2.380.008
Herrietako bideak	101.000	607.022	607.022	607.022	691.164	2.512.230
Guztira programazio lokalean	2.868.400	17.239.430	17.239.430	17.239.430	29.811.268	81.529.558
C) Toki garapena	40.400	242.809	242.809	242.809	270.450	998.877
D) Plan gehigarria 4050	1	6	6	6	6	24
E) Plan berariazkoa	1.000.000	6.010.121	6.010.121	6.010.121	–	18.030.363
F) Plan berezia	350.000	2.103.542	3.906.579	3.906.579	3.906.579	13.823.279
GUZTIRA	7.046.261	42.348.880	46.560.293	46.393.328	51.838.360	187.140.861

Xedapen iragankorra

Foru lege honek indarra hartzearekin batera, Nafarroako toki entitateek Nafarroako ogasun publikoaren tributuetan parte hartzeko funtserako 2002. urtean esleitutako diru-kopuruak erregularizatuko dira, lege honetan adierazitakoari egokitzearren.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatzeko behar diren arauak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkaria Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

ERANSKINA**1. TAULA**

40.000tik goiti	1,42
10.001etik 40.000ra bitarte	1,30
4.001etik 10.000ra bitarte	1,01
2.001etik 4.000ra bitarte	1,12
501etik 2.000ra bitarte	1,12
1etik 500era bitarte	1

2. TAULA**GASTU FUNTZIONALAK. EHUNEKOA.**

Gastu orokorrak	% 41,86
Hezkuntza gastuak	% 8,01
Osasun eta gizarte zerbitzuetako gastuak	% 7,61
Herrilan eta hirigintza gastuak	% 29,49
Kultura eta kirol gastuak	% 13,03

3. TAULA

ALDAGAIA. EHUNEKOA.

Gastuaren arabera ponderaturiko pop.	% 64,92
Osaketaren arabera ponderaturiko pop.	% 10,04
16 urte edo gutxiago dituen pop.	% 2,86
65 urte edo gehiago dituen pop.	% 0,55
Langabeen kopurua	% 0,55
Hiri lurzoru garbia	% 7,08
Zerga ahalegina	% 11,00
Presio fiskala	% 4,00
Herrilurretako balio katastrala	% -1,00

4. TAULA

ALDAGAIK ETA APLIKATUTAKO ITURRIAK.

1.- Udalerri bakoitzeko populazioa. Estatistika-ko Institutu Nazionalak emana (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa).

2.- Udalerri bakoitzeko populazioaren aldaketa azken hamar urte honetan. Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuekin egina.

3.- Kontzejurik gabeko populazio entitateen kopurua (15 biztanle edo gehiago dituztenena). Estatistikako Institutu Nazionalak emana.

4.- Herriguneetatik kanpoko populazioa. Sakanatutako populazioa. Estatistikako Institutu Nazionalak emana.

5.- Udalerri bakoitzeko 16 urtetik beheitiko populazioa. Estatistikako Institutu Nazionalak emana.

6.- Udalerri bakoitzeko 65 urtetik goitiko populazioa. Estatistikako Institutu Nazionalak emana.

7.- Langabeen kopurua. Estatistikako Institutu Nazionalak emana.

8.- Hiri lurzoru garbiaren azalera. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzatiek

batuta duten azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Erreferentzia urtea, udalerrietako populaziorako ematen den berbera.

9.- Zerga ahalegina:

Lurralde kontribuzioagatik likidatutako eskubi-deak. udalek Toki Administrazio-ko Departamentuari igorritako kontuen likidazioetatik aterea.

Udal bakoitzaren hirilur kontribuzioaren sarrera potentziala. Udal bakoitzaren hirilur kontribuzioaren likidazio oinarria bider merkatuko prezioei egokitutako koefizientea, etxebizitzaren kasuan. Biak Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emanak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak, bider legez ezarritako tasa gehienezkoa.

Udal bakoitzaren landalur kontribuzioaren sarrera potentziala. Udal bakoitzaren landalur kontribuzioaren likidazio oinarria. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak, bider legez ezarritako tasa gehienezkoa.

10.- Presio fiskala

Jarduera ekonomikoen gaineko zergagatik likidatutako eskubideak. Udalek Toki Administrazio-ko Departamentuari igorritako kontuen likidazioetatik aterea.

11.- Herrilurren katastroko balioa. Nafarroako toki entitate bakoitzaren herrilurren ondasunen katastroko balioa da eta horretatik heldu dena. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak.

Foru Legea, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Legea, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen gaineko eskumenak bere gain hartu zituenetik eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Legeak agindutako irakaskuntza berriak ezarri ondoren aldaketa sakonak izan ditu Hezkuntza Sistemak.

Orduz geroztik Nafarroan aplikatu izan diren politikak gure komunitateko hezkuntza sistemaren etengabeko hobekuntza lortu beharrez gauzatu dira, helburu bakarra zutela ikasle bakoitzaren prestakuntza ahalik eta osoena eta hoberena izan zedin. Horrez gain ikastetxeen autonomia sakondu eta beren langileak eta baliabideak zehazteko prozesu bat ere abiatu zen, ikaslearen beharrak hobeki ase ahal izateko eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, Ikastetxeetako Parte-hartze, Ebaluazio eta Gobernamenduari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak (LOPEGCE) agintzen duenaren arabera.

Hezkuntza arloko erronka berriei aurre egin behar izate etengabeak administrazioa behartzen du hezkuntza sistema aldiro berraztertu, analizatu eta baloratzera, sistemaren eragingarritasunari eutsi eta hobetzeko.

Lege barruti horretan, 2001eko maiatzaren 31n Hezkuntza eta Kultura Departamentuko ordezkariak eta AFAPNA, CCOO, CSI-CSIF eta FETE-UGT sindikatuek "Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ituna" sinatu zuten, irakaskuntza publikoaren gainean, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak

ontzat eman zuen "irakaskuntza itunduaren arloan pausoz pauso kalitatea eta lan baldintzak hobetzeko akordioa Akordioa", sektore horretako sindikatuek eta enpresa erakundeek 2000ko abenduaren 20an sinatua.

Itun horiek gauzatzeko, beharrezkoa da hainbat neurri aplikatzea, legezko erregulazio bat ere behar dutenak, bai haien edukiagatik eta bai behar duten finantzazioagatik.

Orobat, ikusirik eskola-adinean dagoen populazioa hazi dela, bai jaiotze tasa igotzeagatik eta bai inmigrazioagatik, eta gaurko hezkuntza sistema hazkunde horren arabera moldatu behar delarik, irakasle premia etengabe ari da gora egiten eta bai arlo horretako aurrekontuak ere, bide den bezala.

Hori guztia gogoan, eta asmotan diren helburuak iristea errazteko, honako foru lege hau onetsi behar da.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru lege honen helburua.

Hona hemen foru lege honen helburuak:

a) Bete dadila Hezkuntza eta Kultura Departamentuko ordezkariak eta irakaskuntza publikoko sindikatuek 2001eko maiatzaren 31n sinatu zuten Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ituna, zeina 2004/2005 ikasturtea bukatu arte egonen baita indarrean.

b) Bete dadila irakaskuntza itunduaren arloan pausoz pauso kalitatea eta lan baldintzak hobetzeko akordioa Akordioa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ordezkariak, sektore horretako sindikatuek eta titular eta enpresa erakundeek 2000ko abenduaren 20an sinatua, zeinaren indarraldia 2003ko abenduaren 31ra artekoa baita.

c) Hezkuntza sistema erregulatzeko beste zenbait neurri hartzea, lege honetako IV. Tituluan ezartzen direnak.

II. TITULUA
Nafarroako Foru Komunitateko
hezkuntza zerbitzuaren kalitatea
hobetzeko ituna betetzeko neurriak

2. artikulua. Funtzionario irakasleek eta hezkuntzako ikuskatzaileek borondatezko erretiroa hartzea.

1. Beren borondatez funtzionariotza utzi edo 60 urte pasata eta 28 urteko zerbitzua beteta erretiratzaren diren funtzionarioei (Hezkuntza sisteman antolamendu orokorrerako Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorrek agintzen duenaren arabera), lege horretan zehazten diren baldintzak betetzen badituzte, borondatezko erretiroa saritzeko prima bat emanen die Foru Komunitateko administrazioak, aipatu xedapen iragankor horretan aurreikusten den sari berezia osatzeko.

2. Erretiroko prima hori jaso ahal izateko, nahitaezko baldintza izanen da delako funtzionarioa 1996ko irailaren 1ean jardunean egon izana eta orduz geroztik eta etenik gabe jardunean iraun izana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe baten plantillako lanpostu batean; hezkuntzako ikuskatzaileen kidegoetako funtzionarioen kasuan eta hezkuntza administrazioaren zerbitzuko ikuskatzaileen kasuan, ez da nahitaezko baldintza izanen ikastetxeetako plantilletako lanpostuetan egon izana. Idatz-zati honek aipatzen duen data urtero gaurkotuko da eta foru lege honek indarra duen bitartean, urtebetez.

3. Aurreko idatz-zatietan sari bereziaren eta erretiroko primaren gainean agindu dena, ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legeko lehenbiziko xedapen gehigarriak edo ondorengo arauen batek agintzen duenaren arabera funtzionario bihurtu ziren langileei aplikatuko zaie, eta bai lan kontratueko irakasle finkoei ere.

4. Borondatezko erretiroaren prima zenbatekoa izanen den, foru lege honetako I. eranskinak agintzen du, funtzionarioaren adina, zerbitzu urteak eta kidegoa kontuan harturik.

5. Nafarroako Gobernuak urtero erretiroaren prima handituko du Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langile funtzionario eta estatutupekoen soldata igotzeko urtero finkatzen den kopuru berean, itunean ezartzen dena betetzeko eta itunak irauten duen artean.

3. artikulua. Irakasle ez-unibertsitarioen lanpostuak nola hornitu.

Spainia osoko lekualdatze lehiaketarik egiten ez den ikasturteetan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak irakasle ez-unibertsitarioen

lanpostuak hornitzeko egiten dituen prozeduretan, irakasle kidegoetako kide guztiek izanen dute zilegi parte hartzea baldin eta funtzioz eta organikoki Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren mende badaude, azkeneko destinoan zenbat denbora iraun duten kontuan hartu gabe.

4. artikulua. Europako Batasuneko hizkuntzak edukiak eta hizkuntza modalitateak irakasteko hizkuntza gisa ezartzea.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza ikastetxe publiko guztietan ingelesa edo Batasuneko beste hizkuntza bat ikas-irakasteko hizkuntza gisa ezartzeko, taldearen tutoreak ematen dituen arlo edo curriculum gaietako batzuetan, horrela hizkuntza horiek hobeki ikas daitezten. Eduki horiek ingeles espezialitateko edo kasuko hizkuntzako maisu-maistra titularrek emanen dituzte.

2. Nafarroako Gobernuak 2002/2003 ikasturtea bukatu baino lehen, behar diren arauak emanen ditu hizkuntza ereduak ezarpen honen arabera moldatzeko.

5. artikulua. Kreditu gehigarri bat ematen da, 5.461.860 eurokoa, 2001. urtetik 2002.era luzatutako aurrekontuko kontusail hauetatik hartzekoa:

400000-41000-1230-421100, "funtzionarioen soldata finkoak, osotara"	3.085.860 euro
400000-41000-1312-421100" "ordezko lanak egiteko kontratatu langileen soldatak"	1.800.000 euro
400000-41000-1600-421100, "Gizarte Segurantza"	576.0000 euro

6. artikulua. Kreditu gehigarri hori gastu aurrekontu indarduneko 620001-61100-6010-513409 kontusailetik ("aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak") finantzatuko da, 5.461.860 euroko kopuruan.

7. artikulua. 2003tik 2005era bitarteko ekitaldietan baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari kreditua handitzeko irakasleen gastuari dagozkion kontusailetan, irakasle premia handitzean sortu den gehigarriko gastua berdindu ahal izateko. Premia hori, lehen esan bezala, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ituna, 2001eko maiatzaren 31koa bete beharagatik handitu da, bere indarraldian. Kreditu handitze hori ez da inolaz aurrekontu aldaketatzat hartuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko Foru Legeak agintzen duenari dagokionez.

III. TITULUA

Irakaskuntza itunduaren arloan pausoz pauso kalitatea eta lan baldintzak hobetzeko akordioa betetzeko neurriak

8. artikulua. Ikastetxe itundu eta diruz lagunduetarako laguntza neurriak.

1. Hezkuntzarako eskubidea arautzeari buruzko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoko 49. artikuluko bigarren eta hirugarren idatz-zatiek agintzen dutenaren arabera, eskola unitate bakoitzeko diru moduluaren kopurua, II. eranskinean finkatzen dena da 2002. urterako, ikastetxe itunduak eta diruz lagunduak mantentzeko funts publikoak banatzeko.

Nafarroako Gobernuak, 2000ko abenduaren 20ko akordioak indardun dirauen artean, gaurkuko dituzten II. eranskineko diru moduluak, eta bai modulu horiek aplikatu behar diren epeak ere, eta irakaskuntza itundurako kontusailen kreditua handituko ere, akordioa bete ahal izateko behar den neurrian. Kreditu handitze hori ez da inolaz aurrekontu aldaketatzat hartuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko foru legeak agintzen duenari dagokionez.

Ahalmena ematen zaio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari irakasle/unitate itundu erlazioak finkatzeko, itunpeko maila bakoitzean indarra duen ikasketa plana emateko behar direnak, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du zilegi izanen bere gain hartzea soldata igoerak edo bestelako igoerak (hala nola zuzendaritzako kargudun izatearen edo antzinatasunaren osagarriak), baldin eta igoera horiek II. eranskineko diru moduluetan ezartzen denetik gora pasatzea ekartzen badute.

Irakasleen soldatei buruzko aurreikuspenek, II. eranskinean ageri direnek, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute ondorio, irakaskuntza pribatuaren kasuan kasuko hitzarmenak noiz sinatzen diren kontuan hartu gabe, eta administrazioak zilegi izanen du konturako ordainketak onartzea, aurretik eta espresuki erakunde patronal guztiek eskaera hori bera egin badute, eta sindikatuei kontsulta eginik, kasuko hitzarmena sinatzen den momentura arte. Ulertuko da konturako ordainketa horiek 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dutela ondorio.

“Bestelako gastuak” eta, hala bide denean, langile osagarrientzako moduluaren osagaiak, II. eranskinean sartuta dagoenak, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du ondorio.

Irakasleen soldatetarako ezarritako kopuruak (karga sozialak barne) zuzenean ordainduko ditu

Administrazioak ordainketa eskuordetua eginaz, irakasleen eta kasuko ikastetxearen titularraren artean dagoen lan harremana ezertan galarazi gabe.

“Bestelako gastuak” direlakoei dagozkien kopuruak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie, eta horiek ikasturte bakoitza amaitzean justifikatu beharko dute nola aplikatu diren.

“Gastu aldakorak” osatzen dituzten kopuruak banatzeko, hitzarmenen araubidea arautzen duten xedapenek agintzen dutena hartuko da aintzat.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak behin-behinekoz zehaztuko ditu 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan berritik ezarri beharreko erdi nahiz goi mailako heziketa zikloetako diru moduluak, II. eranskinean sartuta ez badaude, eta zilegi izanen du behin-behinekoz aldatzea eranskin horretan sartuta ez daudenak 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteak hasten direnean, haien ezarpena nola izan den ikusta.

3. Ikastetxe batek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, erdi nahiz goi mailako heziketa zikloak eta berme sozialeko programak ezarri baditu, behar adinako finantzazioa emanen zaio hezkuntza orientazioko eta orientazio psikopedagogiko nahiz profesionalen zerbitzu espezializatuak, Hezkuntza sistemen antolamendu orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Legeko hirugarren xedapen gehigarriko 3 e) idatz-zatian aipatzen direnak, berdintzeko. Zuzkidura hori honako proportzioan egingen da: eginkizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lanegun oso bat, aipatu hezkuntza maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lanegun horren finantzazioa jasotzeko maila horretan itunduta dauzkaten unitate kopuruaren arabera.

4. Banakako hitzarmen partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik heldu den finantzazioa osatzeko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko maila ez nahitaezkoetarako ezarria, eta irakaskuntza arauturako baizik ez, ikasle bakoitzari hilean 22,92 euro kobratuko zaizkio hamar hilabetez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik hasi eta ekainaren 30era, eta irailaren 1etik hasi eta abenduaren 31ra arte.

Ikastetxeek ikasleei diru-kopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuratzen duten finantzazioa diru moduluko “bestelako gastuak” deitu kapitularako erabiliko da, eta beraz administrazioak “bestelako gastuak” delako atalaren kopurua osatzeko falta den kopurua baizik ez du ordainduko.

5. Goi mailako heziketa zikloen banakako hitzarmena partziala izanen da. Horrela, banakako hitzarmen partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik heldu den finantzazioa osatzeko, goi mailako heziketa zikloko maila ez nahitaezkorako ezarria, eta irakaskuntza arauturako baizik ez, ikasle bakoitzari hilean 37,42 euro kobratuko zaizkio hamar hilabetez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik hasi eta ekainaren 30era, eta irailaren 1etik hasi eta abenduaren 31ra arte; salbu eta Lantokietako Lanbide Heziketa beste osagaririk ez duen kurtso batean matrikulatu diren ikasleen kasuan, horiek hilean 32,45 euro ordainduko baitute Lantokietako Lanbide Heziketak 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan irauten duen hiru hiletan.

Goi mailako heziketa zikloetara sartzeko prestaera kurtsoaren banakako hitzarmena partziala izanen da. Horrela, banakako hitzarmen partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik heldu den finantzazioa osatzeko, goi mailako heziketa zikloetara sartzeko prestaera kurtsoaren maila ez nahitaezkorako ezarria, eta irakaskuntza arauturako baizik ez, ikasle bakoitzari hilean 26,53 euro kobratuko zaizkio hamar hilabetez, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik hasi eta ekainaren 30era, eta irailaren 1etik hasi eta abenduaren 31ra arte.

Ikastetxeek ikasleei diru-kopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuratzen duten finantzazioa diru moduluko "bestelako gastuak" deitu kapitularako erabiliko da, eta beraz administrazioak "bestelako gastuak" delako atalaren kopurua osatzeko falta den kopurua baizik ez du ordainduko.

6. Ikastetxeetako parte-hartze, ebaluazio eta gobernamentuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoko zazpigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, zuzendaritza lanari laguntzeko finantzazio bat ezarri behar da; horren ondorioz, II. eranskinean finkatzen diren hezkuntza maila eta modalitate desberdinetako eskola unitate bakoitzeko diru modulu guztiek, salbu eta lantokietako prestakuntzarako unitateak, urtean 214,82 euroko kopuru bat erantsirik daukate "bestelako gastuak" atalean zuzendaritza eta/edo pedagogia laneko beste kargu batzuk finantzatzeko, zuzendaritzako osagarriaz gain, hura "gastu aldakorak" delako atalean sartuta baitago lehen bezala.

7. 2002ko abenduaren 1etik aurrera, II. eranskinean goi mailako heziketa zikloko bigarren kurtsoarako (salbu eta lantokietako prestakuntza hutsa bada) ezartzen diren diru moduluek 0,08 gehituko dute irakasle titularren ratioa, eta beraz irakasleen soldatarako ezarrita dagoen kopuruari (gizarte

zamak barne), eta gastu aldakorretarako ezarritakoari 2.000,97 euro eta 246,46 euro eransten zaizkie, hurrenez hurren.

8. Haur hezkuntza eta derrigorrezko irakaskuntzetako bigarren zikloan itundutako ikastetxe batek hezkuntza premia bereziak dituzten edo egoera sozial larriak dauden ikasleei kontu egiten badie, emendiozko langileak eta baliabideak izanen dituzte, hala nola ikasle horiei kontu egiteko laguntzako irakasleak, logopedia zerbitzuak, zaindariak eta bestelako langile osagarriak.

Baliabide horiek esleitzeko, deialdi publikoa egingen da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsia, behar diren txosten teknikoak esku-ratuta.

9. artikulua. Kreditu gehigarri bat ematen da, 5.194.644 eurokoa, 2001. urtetik 2002.era luzatutako aurrekontuko kontusail haietatik hartzekoa:

410003-41610-4811-422100, "Haur Hezkuntzako 2. zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	607.611 euro
410003-41610-4811-422200, "Lehen Hezkuntzako 2. zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	1.253.254 euro
410003-41610-4811-422202, "Eskolatu gabeko haurrentzako ikastetxeen dirulaguntza: Ilundain etxaldea, Etxabakoitz lantegia eta besteak"	96.553 euro
410003-41610-4811-422300, "Batxilergoko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	395.189 euro
410003-41610-4811-422500, "Hezkuntza Bereziko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	397.281 euro
410003-41610-4811-422700, "Erdi mailako heziketa zikloetako irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	61.633 euro
410003-41610-4811-422800, "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	1.139.528 euro
410003-41610-4811-422802, "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko irakaskuntza pribatuaren dirulaguntza"	1.243.595 euro

10. artikulua. Kreditu gehigarri hori 2001. urtetik 2002.era luzatutako aurrekontuko kontusail hauetatik finantzatzeko da:

620001-61100-6010-513409, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	3.008.917 euro
410001-41120-6059-424104, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	1.502.520 euro
410000-41130-4400-424102, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	82.195 euro

410001-41120-7810-424100, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	180.304 euro
451000-42120-7600-452103, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	300.506 euro
451000-42100-7709-456100, "Aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak"	120.202 euro

IV. TITULUA

Beste hezkuntza neurri batzuk

11. artikulua. Toki entitateen menpeko irakasleak nola transferitu.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, kasuko entitateekin hala adostuta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren plantillan honako irakasleak kideitu ditzan, dela funtzionario gisa dela lan kontratupeko langile finko gisa: Iruñeko Udalaren ikastoletan eta lanbide tailerretan aritzen diren irakasle funtzionarioak eta lan kontratupeko irakasle finkoak, eta beste toki entitate baten menpe Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta lanbide tailerretan aritzen diren beste irakasle funtzionarioak eta lan kontratupeko irakasle finkoak.

2. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari kasuko kontusailetan behar diren kredituak gaitzeko aipatu langile horien gastuak berdintzeko. Gehikuntza hori ez da inolaz ere hartuko aurrekontu aldaketatzat, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko foru legeak agintzen duenari dagokionez.

3. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari behar diren tramiteak egiteko irakasle funtzionario horiek Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Legeak aipatzen dituen irakaskuntzak eman behar dituzten irakasleen kidegoetan sartzeko.

12. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko irakasleentzako konpentsazioak.

1. Maisutza diplomako praktikak ematen dituzten ikastetxeetako maisu-maistrek 30 euro jasoko dituzte tutoretzapeko ikasleko eta kurtsoko.

2. Irakaskuntza ikerketako lanak egiteko, curriculum berrikusteko, irakas materiala eta gelako programazioak sortzeko, hezkuntza sistemaren errendimendua neurtzeko ebaluazio probak eta eite bereko besteak osatzeko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izendatzen dituen irakasleek, betiere baldin lan horiek ez badakarte berekin irakasle horien lanpostuari dagozkion zereginetan aritu beharrik eta beren lanpostuko eginkizunetatik liberatzen ez badituzte, honako konpentsazioak jasoko dituzte Hezkuntza Zuzendaritza Nagu-

siak eginkizun den lanari eta bertan eman beharreko gehieneko ordu kopuruari baimena eman ondoren:

A mailako irakasleak: 17,44 euro lan orduko.

B mailako irakasleak: 14,39 euro lan orduko.

3. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) emateko epaimahaietan eta izangaiak hautatzeko organoetan parte hartzen duten funtzionario publikoek eta lan kontratupekoek, irakasleak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik tokatzen diren konpentsazioak jasoko dituzte.

4. Unibertsitatean sartzeko proban Batxilergo irakasgaien koordinatzaile aritzen direnek kurtsoko 1.500 euroko konpentsazioa jasoko dute.

5. Aurreko ataletan aipatu diren dirutzak urtero berrituko dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langile funtzionario eta estatutupekoen soldatetarako ezartzen den gehikuntzarekin.

13. artikulua. Irakaskuntza itunduko irakasleen artean lan orduak berdintzeko prozesu bat, asteen bi ordu kendu arte, eta hezkuntzaren kalitate pausoz pauso hobetzeko prozesu bat hastea.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du etorkizuneko ekitaldietarako gastu konpromisoak hartzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 88/1988ko Foru Legeak baimentzen duenaz haratago, 2008. urtera arte, urte horiek ere barne, hezkuntza zerbitzua hobetzeko ahaleginaren barrenean, ordainketa eskuordetuan sartuta dauden irakaskuntza itunduko irakasleen lan baldintzak hobetzea eta ikastetxe itunduetako beste gastuetan laguntzea helburu, beti ere aurretik irakaskuntza pribatu itunduko sektoreko sindikatu eta enpresa erakunde gehienek horretarako akordio bat sinatzen badute.

Prozesu honek hasiera batez 2002/2003 ikasturtetik 2007/2008 ikasturterainoko epe bat hartzen du, bi ikasturteok ere barne direla, eta haren helburua izanen litzateke asteko irakaslaria bi orduetan murriztea lanaldi osoan ari diren irakasleentzat eta ikastetxe itunduetako "bestelako gastuak" direlakoetarako dirutza handitzea. Prozesu hori eskola orduen kopuruan diferentzia handienak izaten diren hezkuntza mailetan hasiko da.

2. Nafarroako Gobernuak gehienez honako dirutzen konpromisoak hartu ahal izanen du hurrengo ekitaldietako bakoitzean, 2002ko euro konstanteetan:

2002. urtea: 317.416 euro.

2003. urtea: 1.402.783 euro.

2004. urtea: 2.578.658 euro.
 2005. urtea: 3.636.879 euro.
 2006. urtea: 5.021.032 euro.
 2007. urtea: 5.937.569 euro.
 2008. urtea: 6.671.426 euro.

2003. urteko kopurua, 2000ko abenduaren 20ko "irakaskuntza itunduaren arloan pausoz pauso kalitatea eta lan baldintzak hobetzeko akordioa Akordioa" delakoan dagoeneko itundu den soldata igieran gaurkotuko da.

3. Behin irakaskuntza pribatu itunduaren sektoreko enpresa erakundeek eta sindikatuek akordio hori, artikulua honetako lehenbiziko atalean aipatu dena, lortu ondoren, eta betiere bigarren atalean gertutu diren dirutzen arabera bada, ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, akordioari aurretik onespina emanik, betetzeko aukera ematen duten hezkuntza hitzarmenen diru modulu berriak aldatu edo zehazteko.

4. Kreditu berezi bat ematen da, 317.416 eurokoa, 2001. urtetik 2002.era luzatutako aurrekontuko 410003-41610-4811-422000, "2002-2008 urteetako ikastetxe itunduaren sektoreko akordiorako dirulaguntza" delako kontusail berriari gehitzeko. Gehigarri hori 620001-61100-6010-513409 "aplikaziorik gabeko kreditu luzatuak" delako kontusailetik hartuko da.

5. 2000ko abenduaren hogeiko akordioaren indarraldia bukatu delarik, Nafarroako Gobernuak aztertu egingen du, aurrekontuan erabilgai dagoen diruaren arabera, zer neurri eta zer beste kreditu behar diren irakaskuntza pribatu itunduaren sektoreak (sindikatu eta enpresa erakundeen ordezkariak) irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko akordio berria egin dezaten, zeinean soldata berdintzeko prozesuan aurrera egingen baita harik eta ordainketa eskuordetuan sartutako ikastetxe itunduetako irakasleen soldata Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko irakasleen oinarrizko soldata gehi berariazko gehigarriaren ehuneko lauogeita hamabostera iritsi arte, kasuan kasuko hezkuntza eta soldata mailaren arabera.

14. artikulua. Lanerako prestatzeko eta etengabeko lanbide heziketa.

1. Bigarren Hezkuntzako irakasle kidegoen eta Lanbide Heziketako irakasle tekniko kidegoetakoek, berariazko Lanbide Heziketan beren lanarekin segitzen badute ere, Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko hamargarren xedapen gehigarriko 1. Idatz-zatiak agintzen duenaren arabera, eta kidego horietako irakasleei irakaste gaitasuna

esleitzen dieten oinarrizko arauak agintzen dutenarekin bat, zilegi izanen dute lanerako prestatzeko eta etengabeko lanbide heziketan ere aritzea zein bere ikasketa eta lanbidearen arabera. Irakasle horiek zilegi izanen dute beren lanposturako ezarrita dagoen lanaldia eta lan orduak osatzeko hezkuntza modalitate horiek ematea. Zilegi izanen dute, halaber, gehienez urtean 150 ordu ematea lanerako prestatzeko eta etengabeko lanbide heziketan lanbide heziketa arautuan duten dedikazioak beren lanaldi eta lanordu guztiak hartzen badizkie.

2. Aurreko puntuan ezarri dena lanbide heziketa arautuan behin-behineko langile gisa irakaslearen ari diren irakasleei aplikatuko zaie.

3. Lanerako prestatzeko eta etengabeko lanbide heziketan lan egitea interes publikokotzat hartuko da Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko araudian agintzen denari dagokionez.

4. Erregelamendu bidez finkatuko da zer prozeduraren bidez izendatu edo kontratatuko diren lanerako prestatzeko eta etengabeko lanbide heziketan arituko diren irakasleak, eta bai zer soldata eta beste alderdi beharko diren artikulua honek agintzen duena bete dadin.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Ministerioari eskatuko dio legerian behar diren aldaketak egiteko Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean kotizatzen duten irakasleek gainerako irakasleen baldintza berberetan hartu ahal izan dezaten erretiro aurreratua.

Bigarrena. 2001/2002 ikasturtean –baimenik gabe bada ere– jardunean ziren eremu ez euskalduneko ikastolak, egungo egoera legeria indardunera egokitzen den bitartean, 2001eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreko foru legean dirulaguntzak emateko ezarritako araubide berezi eta aldi baterakoari jarraikiz finantzatuko dira 2002ko urtarrilaren 1etik 2004ko abuztuaren 31 arte.

Xedapen iragankor bakarra

2001/2002 ikasturtean –baimenik gabe bada ere– jardunean ziren eremu ez euskalduneko ikastolak, euren egoera legeria indardunera egokitzen den bitartean, 2000ko ekitaldiko aurrekontuetako zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako araubide berezi eta aldi baterakoari jarraikiz finantzatuko dira 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina, hez-

kuntza maila ezberdinetarako indarrean diren moduluak gaurkotuta.

Azken xedapen bakarra

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

2002.- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioak, Bigarren Hezkuntzako katedradun izaera dutenak; Musika eta Eszena Arteetako Katedradunen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Arte Plastiko eta Diseinu katedradun izaera dutenak; Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradun izaera dutenak, eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	7.593,34	7.677,24	7.677,24	7.677,24	7.740,18	7.740,18	7.740,18	7.813,59
Adina 63 urte	7.824,08	7.824,08	7.824,08	7.897,48	7.897,48	7.897,48	7.970,90	8.243,11
Adina 62 urte	7.970,90	7.970,90	8.054,82	8.054,82	8.348,48	8.904,35	9.565,09	10.341,20
Adina 61 urte	8.128,23	8.191,16	8.558,23	9.156,05	9.858,75	10.687,32	11.641,71	12.690,52
Adina 60 urte	8.526,78	9.124,59	9.816,80	10.634,86	11.589,29	12.711,50	13.959,57	13.959,57

2002.- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko, Musika eta Eszena Arteetako irakasleen kidegoko, Arte Plastiko eta Diseinu irakasleen kidegoko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen kidegoko funtzionarioak.

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	7.655,07	7.739,66	7.739,66	7.739,66	7.803,10	7.803,10	7.803,10	7.877,12
Adina 63 urte	7.887,69	7.887,69	7.887,69	7.961,70	7.961,70	7.961,70	8.035,72	8.035,72
Adina 62 urte	8.035,72	8.035,72	8.120,30	8.120,30	8.120,30	8.204,88	8.511,51	9.103,62
Adina 61 urte	8.194,31	8.278,90	8.278,90	8.278,90	8.744,12	9.367,95	10.097,51	10.953,95
Adina 60 urte	8.278,90	8.278,90	8.712,41	9.325,66	10.055,21	10.901,08	11.894,97	13.068,61

2002.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko edo Arte plastiko eta Diseinuko Lantegi maisu-maistren kidegoko funtzionarioak

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	6.366,58	6.422,33	6.422,33	6.422,33	6.468,81	6.468,81	6.468,81	6.524,57
Adina 63 urte	6.533,88	6.533,88	6.533,88	6.580,35	6.580,35	6.580,35	6.645,40	6.645,40
Adina 62 urte	6.645,40	6.645,40	6.701,17	6.701,17	6.701,17	7.054,36	7.481,89	8.002,36
Adina 61 urte	6.756,94	6.812,70	6.812,70	7.212,35	7.686,37	8.234,73	8.876,03	9.628,87
Adina 60 urte	6.812,70	7.193,77	7.658,49	8.197,55	8.838,85	9.582,39	10.456,07	11.487,72

2002.- Maisu-Maistren kidegoko funtzionarioak

Zerbitzu urteak	28	29	30	31	32	33	34	35 edo gehi.
Adina 64 urte	6.344,41	6.393,43	6.393,43	6.393,43	6.452,28	6.452,28	6.452,28	6.511,10
Adina 63 urte	6.893,54	6.893,54	6.893,54	6.942,56	6.942,56	6.942,56	7.011,20	7.011,20
Adina 62 urte	7.011,20	7.011,20	7.070,05	7.070,05	7.070,05	7.138,69	7.403,44	7.854,51
Adina 61 urte	7.128,87	7.187,71	7.187,71	7.187,71	7.570,14	8.060,44	8.629,17	9.305,78
Adina 60 urte	7.187,71	7.187,71	7.550,53	8.040,82	8.599,76	9.266,56	10.041,22	10.953,18

II. ERANSKINA

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAKORRAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,12		31.717,12	75,48	3.960,02	9,42	6.340,96	15,09	42.018,10
LEHEN HEZKUNTZA	1,28		36.248,14	74,57	5.619,81	11,56	6.740,57	13,87	48.608,52
D.B.H., LEHEN ZIKLOA	1,52		44.019,43	75,85	5.969,07	10,29	8.048,38	13,87	58.036,88
D.B.H., BIGARREN ZIKLOA	1,59		52.411,97	77,49	6.155,25	9,10	9.073,03	13,41	67.640,25
D.B.H., CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA	0,68	0,6	39.990,70	74,02	4.961,64	9,19	9.073,03	16,79	54.025,47
D.B.H., CURRICULUM EGOKITUKO UNITATEA	0,88	0,6	46.583,40	76,10	5.565,95	9,09	9.073,03	14,82	61.222,38
BATXILLERGOA	1,52		50.104,52	75,84	6.890,18	10,43	9.073,03	13,73	66.067,73
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA	1,44		47.467,44	75,56	6.277,33	9,99	9.073,03	14,44	62.817,80

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	LANGILE OSAG.	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA. PSIKIKOAK	1		28.318,86	45,34	3.092,88	4,95	6.740,57	10,78	24.319,23	38,93	62.471,54
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA. AUTISTAK	1		28.318,86	49,31	3.092,88	5,38	6.740,57	11,72	19.292,07	33,59	57.444,38
LANBIDE HEZIKETA BEREZIKO HASTAPEN PROGRAMAK	1	1	57.062,90	52,95	6.170,41	5,73	9.073,03	8,41	35.479,41	32,92	107.785,75
BIZITZA HELDURAKO PRESTATZEKO PROGRAMAK	0,64	0,36	28.471,92	49,30	3.255,29	5,64	6.740,57	11,66	19.292,07	33,41	57.759,85

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA	1.	0,52	0,92	44.090,16	70,77	5.406,85	8,68	12.814,53	20,57	62.311,54
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
2) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA zaticako eskaintza hiru kurtsotan antolatuta	1.	0,36	0,32	21.240,48	67,27	2.673,49	8,47	7.666,44	24,28	31.580,41
	2.	0,36	0,24	18.897,07	71,4	2.424,41	9,16	5.148,10	19,45	26.469,58
	3.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
3) E.H.Z., ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	1.	0,4	1,2	48.336,45	73,4	5.791,50	8,79	11.732,15	17,82	65.860,10
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
4) E.H.Z. SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA	1.	0,48	1,24	52.145,23	66,4	6.240,85	7,95	20.160,29	25,67	78.546,37
	2.	0,84	0,56	44.093,16	63,14	5.585,08	8	20.160,29	28,87	69.838,53
5) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETAKO AURREINPRIMAK.	1.	0,4	1,12	45.993,03	66,81	5.542,41	8,05	17.317,25	25,15	68.852,69
	2.	0,68	0,68	42.334,11	65,18	5.309,15	8,17	17.317,25	26,66	64.960,51
6) E.H.Z., ARTE GRAFIKO- ETAKO INPRIMAK.	1.	0,56	0,96	46.580,40	65	6.514,00	9,09	18.580,00	25,93	71.674,40
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
7) E.H.Z., AROTZ-LANAK ETA ALTZARIAK NEURRIRA EGIN ETA INSTALATZEA	1.	0,76	0,92	52.001,39	68,65	6.381,21	8,42	17.377,37	22,94	75.759,97
	2.	0,52	0,92	44.090,16	65,94	5.406,85	8,09	17.377,37	25,99	66.874,38
8) E.H.Z., FARMAZIA	1.	0,36	1,08	43.502,81	72,14	5.255,47	8,72	11.515,76	19,16	60.310,04
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
9) E.H.Z., EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTRONIKOAK	1.	0,64	0,96	49.217,48	67,68	6.018,59	8,28	17.497,63	24,06	72.733,70
	2.	0,6	0,76	42.040,44	64,91	5.233,46	8,08	17.497,63	27,02	64.771,53
10) E.H.Z., MEKANIZAZIOA	1.	0,56	1,2	53.610,62	69,06	6.441,07	8,3	17.585,83	22,65	77.637,52
	2.	0,6	0,8	43.212,14	65,33	5.357,78	8,1	17.585,83	26,59	66.155,75
11) E.H.Z., MERKATARITZA	1.	0,96	0,64	50.392,18	73,36	6.321,35	9,2	11.984,70	17,45	68.698,23
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) G.H.Z., NAZIOARTEKO MERKATARITZA	1.	1,08	0,32	44.974,20	72,79	5.812,16	9,41	11.010,57	17,82	61.796,93
	2.	1,04	0,2	40.140,55	71,15	5.276,13	9,35	11.010,57	19,52	56.427,25
2) G.H.Z., PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA	1.	1,32	0,24	50.542,02	69,7	6.537,43	9,02	15.441,11	21,29	72.520,56
	2.	0,68	0,72	43.505,81	67,58	5.433,70	8,44	15.441,11	23,99	64.380,62
3) G.H.Z., ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	1.	0,8	0,48	40.431,22	70,64	5.173,61	9,04	11.641,96	20,34	57.246,79
	2.	1,16	0,12	41.752,86	70,89	5.514,22	9,36	11.641,96	19,77	58.909,04
4) G.H.Z., OSASUN DOKUMENTAZIOA	1.	0,96	0,48	45.705,37	70,57	5.823,17	8,99	13.247,48	20,45	64.776,02
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
5) G.H.Z., HAUR HEZKUNTZA	1.	0,64	0,88	46.874,08	73,61	5.769,51	9,06	11.046,64	17,35	63.690,23
	2.	1	0	32.963,50	67,98	4.491,02	9,26	11.046,64	22,78	48.501,16
6) G.H.Z., MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA	1.	0,96	0,64	50.392,18	73,83	6.321,35	9,26	11.551,76	16,92	68.265,29
	2.	0,24	0	7.911,24	71,59	974,35	8,82	2.164,77	19,59	11.050,36
7) G.H.Z., INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA	1.	1,2	0,52	54.788,31	74,23	6.922,06	9,38	12.110,99	16,41	73.821,36
	2.	0,96	0,44	44.533,68	71,44	5.698,61	9,14	12.110,99	19,43	62.343,28
8) G.H.Z., ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMAK	1.	0,96	0,8	55.078,99	72,82	6.819,53	9,02	13.745,38	18,17	75.643,90
	2.	1,08	0,32	44.974,19	69,7	5.812,16	9,01	13.745,38	21,3	64.531,73
9) G.H.Z., MEKANIZAZKO BIDEZKO PRODUKZIOA	1.	0,6	1	49.070,63	69,38	5.980,73	8,46	15.681,62	22,17	70.732,98
	2.	1,2	0,2	45.414,70	67,77	5.925,69	8,84	15.681,62	23,4	67.022,01
10) G.H.Z., GARRAIOAREN KUDEAKETA	1.	0,72	0,64	42.480,95	72,21	5.346,99	9,09	11.010,57	18,72	58.838,51
	2.	1,24	0	40.874,74	71,28	5.465,37	9,53	11.010,57	19,2	57.350,68
11) G.H.Z., INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA	1.	1,16	0,48	52.298,08	74,02	6.635,13	9,39	11.732,15	16,6	70.665,36
	2.	0,96	0,36	42.190,28	71,07	5.449,52	9,18	11.732,15	19,76	59.371,95
12) G.H.Z., ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITOLOGIA	1.	0,88	0,68	48.926,81	71,85	6.121,12	8,99	13.059,88	19,18	68.107,81
	2.	1,08	0	35.600,58	66,58	4.815,78	9,01	13.059,88	24,43	53.476,24
13) G.H.Z., ARTE GRAFIKOETAKO PRODUKZIOA	1.	0,36	1,24	48.189,61	67,7	5.753,66	8,08	17.245,08	24,23	71.188,35
	2.	0,96	0,44	44.533,68	66,01	5.698,61	8,45	17.245,08	25,56	67.477,37
14) G.H.Z., PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA	1.	0,76	0,8	48.486,29	69,53	6.007,58	8,61	15.248,68	21,87	69.742,55
	2.	1,4	0	46.148,90	68,36	6.114,93	9,06	15.248,68	22,59	67.512,51

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Legea, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Indarkeria sexista, etxean eta bikotekideen artean gertatzen dena barne, arazo publikoa da, eta gizarte osoaren inplikaziotik eta hari aurrea hartzeko eta hura saihesteko baliabide guztiekin heldu behar zaio. Asmo horrekin, dagoeneko erabilgarri ditugun lege erantzunez eta biktimaren diren edo izan daitezkeen eskura administrazioak jartzen dituen bitartekoez gain, erantzun bide horiek handitu eta neurri juridikorekin egokitzea da asmoa, bai eta prebentzio neurriak hartzea hezkuntzan, prestakuntzan, informazioan, gizarte sentsibilizazioaren esparruan, gizarte eta osasun arloetan, eta lan esparruan. Biktimen aldeko neurriak ezartzen dira, nahiz eta, betiere, biktimaren akzio penalez balia daitekeen.

Indarkeria sexistak eragindako gertaerak saihestea da helburua eta, gertatuz gero, eraso eta haren ondorioak jasaten dituztenak –eraso-tzailearen nola biktimaren ardurapean egoteagatik– babestea.

Gai honetan adituak diren nazioarteko erakundeek, Nazio Batuek edo Munduko Osasun Erakundeak kasu, arazo hau salatu dute eta aginta-

riak premiatu dituzte horrelakorik ez gertatzeko neurriak abian jartzera. Halatan, Nazio Batuek, Emakumei buruzko Munduko Konferentzian, 1995eko irailean, bereziki aztertu zuten emakumeen kontrako indarkeria, eta berdintasuna, garena eta bakea bezalako helburuak lortzeko oztopatzat eta giza eskubideez eta banakako askatasunez baliatzeko eragozletzat ere kalifikatu zuten

Generoko estereotipo sozialek, usadioz, gizon eta emakumeen arteko hierarkia sortu dute, eta emakumeen gaitasun eta baloreekiko gutxiespenak aurreiritziak eta estereotipoak eragin ditu, gizarteko desoreka eta ez berdintasun handien iturri bihurtu direnak. Generoko indarkeria misoginiaren eta emakumeen kontrako zuzengabekeria sozialaren erakusgarri muturrekoena da. Indarkeria mota honek ez du aintzat hartzen ez mugarik, ez gizarte klaserik, ez hezkuntza mailarik: eraso-tzailea zein eraso jasandakoa, biak, hezkuntza maila altukoak edo apalekoak izan daitezke, gizarte klase batekoak zein besteak, hala frogatzen baitu azken urteotan eginiko estatistika ugariak.

Indarkeria sexista desagerrarazteko gizarte osoak eta erakunde publiko eta judizial guztiek hartu behar dute parte, herritar guztiek halako jokabideak errefusa ditzaten lortzeko.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Helburua.

Foru lege honen helburua da indarkeria sexistaren aurrean sentsibilizatu, hari aurrea hartu eta hura desagerrarazteko neurri integralak hartzea, bai eta eraso fisiko eta psikologikoetako biktimak babestea eta haiei laguntza ematea ere.

Ondorio hauetarako, indarkeria sexistatzat edo generoko indarkeriatzat jotzen da indarkeria edo

eraso egintza oro, sexu baten nagusigoan oinarritua, kalte fisiko, sexual edo morala dakarrena edo ekar dezakeena; horren barruan, halako egintzen mehatxuak eta derrigortzea edo askatasungabetez arbitrarioa ere sartzen dira, jendaurrean nahiz bizitza familiar edo pribatuan gertatu.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honetan aurreikusitako neurriak Nafarroako Foru Komunitatean edozein motatako generoko indarkeriaren biktima den pertsona orori aplikatuko zaizkio.

II. KAPITULUA Sentsibilizazio neurriak

3. artikulua. Ikerketa eta jarduketa planak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak indarkeria sexistaren arrazoi, ezaugarri eta ondorioei buruzko azterlan eta ikerlanak egin eta bultzatuko ditu, bai eta hari aurrea hartu eta hura desagerrarazteko aplikatzen diren neurrien eraginkortasunaren gaineko ebaluazioari buruzkoak ere.

2. Egiten diren ikerlan eta ekintza plan integralen hedapen publiko nahikoa egingen da, eta, bereziki, arlo sozial, juridiko, hezkuntzako, sanitario, polizial eta judizialean gaiarekin lotura duten profesional eta erakundeei helaraziko zaizkie.

3. Nafarroako Gobernuak urte anitzeko ekintza plan integralak igorriko ditu, indarkeria sexistaren aurka borrokatu eta biktimei ematen zaien arreta hobetzeko, Parlamentuak eztabaida eta onets ditzan.

4. artikulua. Informazioa eta sentsibilizazio soziala.

Nafarroako administrazio publikoek generoko indarkeriaren gaineko sentsibilizazio kanpainak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldekoak egingen dituzte. Horretarako, behar diren baliabide guztiak erabiliko dira, herritarrek oro har eta bereziki emakumeek behar adina informazio izan dezaten dauzkaten eskubideei eta dauden baliabideei buruz. Arreta berezia jarriko zaie landa inguruneko emakumeei, etorkinei, ezgaitasunen bat daukaten emakumeei eta babes gabetasun maila handiagoa gerta daitekeen kolektibo edo arloetako gainerako emakumeei.

2. Hedabide publikoek edo baliabide publikoekin diruz lagundutako hedabideek indarkeriaz jardutea eragin dezakeen irudi edo eduki laidogarriko programazioan emanen ez dutela bermatuko du Foru Gobernuak.

5. artikulua. Hezkuntza arlo neurriak.

1. Hezkuntza administrazioak eskola erkidegari zuzenduriko jarduerak egitea sustatuko du, indarkeria fisiko eta psikikoko jokaera eta jarrerei aurrea hartzekoak, gatazkak aztertu eta ebazteko estrategietan sakontzera eta pertsona guztiekiko errespetuan oinarrituriko bizikidetasunerako ikas-tertera bideratuak.

2. Hezkuntzaren arloan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko, Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean, hezkuntza maila guztietan, hezkuntza curriculum osatzen duten eduki, prozedura, jarrera eta balore guztiak generoko ikuspegitik egokituko ditu.

3. Hezkuntza materialak berrikusterakoan, arreta berezia jarriko da gizon eta emakumeei balio ezberdina ematea sustatzen duten aipamen edo ideiak jasotzeagatik berdintasun printzipioa urratzen dutenak kanpo uzteko.

4. Hezkuntzako profesionalen prestakuntza programetan, generoko indarkeria ikasgai berezi gisa sartuko da.

6. artikulua. Hezkuntza plan eta proiektuetako jarraibideak.

1. Hezkuntza administrazioak hezkidetzari buruzko aholkuak emanen ditu, ikastetxeetako eta irakasleei laguntzeko zentroetako orientazio lanei euskarria emateko.

2. Tutore-lanei buruzko planek, hezkuntza maila guztietakoek, gizezkoen eta emakumezkoen ereduak buruz gogoeta egiteko atal berariazkoak izanen dituzte; halaber, ikasketa eta lanbideei buruzko orientazioa emanen dute, betiere pertsonen gaitasun eta ahalmenetan oinarritua, eta ez sexu batekoa ala bestekoa izatean.

3. Ikastetxeko hezkuntza proiektuen ereduak, hezkuntza administrazioak prestatutakoek, beren determinazioetan pertsona guztien gorputzarekiko errespetuzko, auto-estimuzko, segurtasun pertsonaleko eta errespetu eta indarkeria ezean oinarrituriko giza harremanak praktikatzeko jarrerak garatzea sustatuko dituzten jokabideko jarraibideak emanen dituzte.

4. Hezkuntza administrazioak ikastetxe guztietan hezkidetzako proiektu berariazkoak egitea sustatuko du. Proiektu horiek pertsonen benetako garapen integrala lortzen laguntzeko jarrera, balore eta ahalmenak bermatu eta sustatuko dituzte.

7. artikulua. Profesionalen prestakuntza.

Indarkeria sexistari aurrea hartu eta hura desagerraraztearekin eta indarkeria horren biktimei

babes eta laguntza ematearekin loturiko entitate publiko eta pribatuetako langile guztiek parte hartzeko moduko prestakuntza programak jarriko ditu abian Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak.

8. artikulua. Elkartze mugimenduak eta agerpen kultural eta artistikoak laguntzea.

1. Foru Komunitateko administrazioak indarkeria sexistaren gaineko sentsibilizazio, aurre-hartze eta desagerrarazte jarduerak antolatzen dituzten elkarten aldeko laguntza ekonomikoari buruzko plan berezi bat eginen du.

2. Nafarroako Gobernuak emakumeen aurka indarkeriari aurre hartu eta hura deuseztatze sentsibilizazio sozialeko estrategiak proposatzen dituzten agerpen kultural eta artistikoak sustatuko ditu.

III. KAPITULUA Aurreneurriak

9. artikulua. Nafarroako polizia kidegoen espezializatzea.

Nafarroako Gobernuak eta polizia kidegoak dauzkaten toki entitateek polizia behar duten prestakuntza eta baliabideak emanen dizkiete eraginkortasun handiena lor dezaten generoko indarkeriari aurre hartzen eta biktimak babesteko hartu diren neurri judizialak kontrolatzen; horretarako, unitate bereziak sortu ahal izanen dira.

10. artikulua. Arreta eta informazio iraunkorak.

Foru Komunitateko administrazioak informazio, laguntza eta aholkularitza zerbitzu iraunkor bat ezarriko du. Zerbitzu horrek urrutiko kontrol pertsonaleko sistema bat izanen du, zeinak indarkeriaren biktimak berehala aurkitu eta haiei laguntza emateko teknologia aurreratuko gailu elektronikoen erabiliko dituen.

11. artikulua. Topalekuak.

Emakumeen berdintasunaren arloan eskuduna den departamentu edo erakundeak elkartzeko lekuak edo topalekuak sortuko ditu, aita-amek adingabeei egiten dizkieten bisitak egiteko, bikotean indarkeria aurrekariak gertatu eta deuseztasun, bereizte eta dibortzio kasuetan. "Topaleku" horietan agintari judizialei behar diren txostenak igorriko dizkien langile espezializatuek eginen dute lan.

IV. KAPITULUA Biktimentzako babesa eta laguntza

12. artikulua. Aholkularitza neurriak eta laguntza juridikoa.

1. Tratu txarren edo eraso sexualen biktime direnentzako aholku eta laguntza juridikoa laguntza juridikoko zerbitzu baten bitartez eginen da. Zerbitzu hori etenik gabeko guardia lokalizatuko araubidean emanen da.

2. Laguntzaren barruan gutxienez ere biktimentzako orientazioa eta behar diren lekuetara eta jarduketak egitera lagun egitea egonen dira, –hala nola, osasun zerbitzu, polizi egoitza, egoitza judizial eta abegi etxeetara–.

3. Zerbitzu horren erantzukizuna hartuko duen entitateak behar direnak eginen ditu bere berri eta dauzkan betekizunen berri emateko.

13. artikulua. Larrialdi zerbitzua.

Larrialdi zerbitzuak larrialdiko laguntza emanen die, eguneko 24 orduetan, tratu txarren biktime diren emakumeei eta horien karguko adingabeei, Nafarroa osorako telefono bakar baten bitartez.

Zerbitzu horrek abian jarriko ditu kasu bakoitzean behar diren laguntza, babes eta abegi baliabideak, eta biktimei berehalako babes eta laguntza emanen die.

14. artikulua. Osasun laguntza

1. Foru Komunitateko administrazioak osasun jarduketako jarraibide uniformeak bere baitan hartuko duen protokolo bat prestatuko eta banatuko du, bai arlo publikoan bai arlo pribatuan. Protokolo horretan, halaber, indarkeria sexistaren biktimei laguntza ematen berariaz esku hartzen duten erakunde ezberdinekin koordinatzeko prozedurak sartuko dira.

Aurreko lerrokadako protokoloa osasun sistemen zentro eta zerbitzu guztietan erabiliko da eta zerbitzuen ardura duten langileentzat behar diren irizpide teknikoak jasoko ditu tratu txarrak jasan ohi dituen edo tratu txarrak jasateko arriskuan dagoen emakumearekin lan egitean bideratzeko: arriskuari aurre hartu, antzemate goiztiarra egin edo modu jarraituan esku hartzea.

2. Protokoloak txosten eredu bat edukiko du; bertan osasun arloan jarraituriko jarduketak eta emakumea kasuan kasuko gizarte zerbitzu berariazkoetara deribatu ote den jasoko dira.

3. Eraso edo tratu txarrek eragindako kalte fisiko edo psikikoak egiaztatu edo haiei buruzko

susmo oinarritua dagoenean, txostena guardiako epaitegira edo fiskaltzara igorriko da.

15. artikulua. Laguntza psikologikoa.

Indarkeriazko ekintzen edo eraso sexualen biktima diren emakumeei doako laguntza psikologikorako eskubidea aitortzen zaie: horren barruan, hasierako arretoa eta prozesu terapeutikoak irauten duen bitarteko jarraipena sartuko dira.

Laguntza hori berdin emanen zaie indarkeria egoera bizi izan edo pairatu duten adingabeei.

16. artikulua. Etxebizitza eskuratzea.

Indarkeria sexistaren biktima izan eta egonaldia bukatu abegi etxeetatik joaten diren emakumeek doako behin-behineko lojamendu bat edukitzeko laguntza ekonomikoetarako eskubidea izanen dute, haien gizarte- eta lan-egoerak hala eskatzen badu. Laguntza horien zenbatekoa eta haiek emateko prozedura erregelamendu bidez ezarriko dira.

17. artikulua. Gizarteratzea eta laneratzea.

1. Nafarroako Gobernuak indarkeria sexistaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresa edo entitateentzat, dirulaguntzen araubide bat ezarriko du, eta, emakumeok langile autonomo gisa jarri gero, beraientzat.

2. Halaber, kolektibo hori, Nafarroako Foru Komunitateak garatzen dituen prestakuntza edo gizarteratze eta laneratze programetan lehentasunez eta berariaz sartuko da, baina horretarako izena eman beharko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren erregistroetan.

3. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lehentasuna emanen dio kolektibo horri enplegua eskatzeko zerrendetan.

4. Aurreko idatz-zatietan jasotako jarduketak lehentasunez aplikatuko zaizkie abegi etxeetan dauden edo egon diren emakumeei etxe horietatik atera eta hurrengo bi urteetan.

V. KAPITULUA
Prestazio ekonomikoak

18. artikulua. Oinarrizko errenta.

Nafarroako Gobernuak prozedura laburtu bat ezarriko du oinarrizko errenta tramitatu, eman eta ordaintzeko indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzat; horretarako, legez ezarritako baldintzak bete beharko dituzte emakumeek. Prestazioaren eskubidearen aitortzea eta haren ordainketa interesdunak kasuan kasuko gizarte zerbitzuetan eskaria egin eta hilabeteko epean gauzatuko dira.

19. artikulua. Larrialdiko laguntzak.

1. Gizarte zerbitzuek zuzenean kudeatuko dute berariazko kontusail bat, larrialdiko laguntzetarako; haren xedea izanen da berehalako erantzuna ematea larrialdi sozialeko egoeran daudenei: batetik baliabide ekonomikorik eduki ez eta indarkeria sexistaren biktima izan diren emakumeei, eta bestetik emakumeei laguntzeko zentroetan, abegi etxeetan edo larrialdiko zentro edo zerbitzuetan dauden profesionalen irizpideen arabera laguntza jaso beharrean dauden emakumeei.

2. Laguntza horien motak eta zenbatekoak eta haien kudeaketa-araubidea erregelamendu bidez ezarriko dira.

20. artikulua. Eskola laguntzak.

Hezkuntza administrazioak faktore kualifikatuztat hartuko du familia ingurune indarkeria diru baliabide eskasak dauzkaten familientzako laguntzak arautu eta ezartzerakoan, batez ere eskola, jantoki eta eskolaz kanpoko jardueretarako gastuei dagokienez.

21. artikulua. Gorputzeko lesioengatiko edo kalte fisiko edo psikikoengatiko laguntzak.

1. Indarkeria sexistaren ondorioz gorputzeko lesioak edo osasun-kalte fisiko edo psikiko larriak dauzkaten emakumeek, erregelamenduz ezarriko diren baldintza eta betebeharrak betez gero, eskubidea izanen dute diru kopuru bat ordainketa bakarrean jasotzeko. Diru kopuru hori bateragarria izanen da epai bidez ezar daitezkeen kalte-ordainekin edo legez eskura ditzaketen bestelako prestazio ekonomikoekin.

2. Laguntzak ezartzerakoan, bereziki hartuko da kontuan biktimaren egoera sozioekonomikoa.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Erakundeen arteko akordioak eta jarduteko protokoloak.

1. Nafarroako Gobernuak bultzatu egingen du foru lege honen xedea den arloan lan egiten duten erakundeen eta administrazio publiko eskudunen arteko akordioak egitea, arlo polizial, sanitario, sozial eta judizialean indarkeria sexistaren biktima direnei laguntza orotarikoa eta koordinatua emateko jardute eta kolaborazio bidea izan daitezen.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateak, dagokion eremuan, departamentuen arteko behar diren protokoloak egingen ditu indarkeria sexistari aurrea hartu eta hura desagerrarazteko.

Bigarrena. Jarduketan jarraipena eta haiei buruzko informazioa.

Nafarroako Gobernuak urtero Parlamentura nahitaez ondokoak jasoko dituen txosten bat igorriko du:

a) Foru administrazioak indarkeria sexistari aurrea hartu eta haren biktimen diren emakumeei babesa emateko erabili dituen giza-, laguntza- eta diru-baliabideak.

b) Aurkeztutako salaketan kopuruari buruzko informazioa.

c) Indarkeria sexistaren biktimen diren emakumeei laguntza emateko foru administrazioak egingo dituzten jarduketak.

d) Arloan eskumenak dauzkaten erakunde edo organismoek egin zaizkien neurri juridikoen proposamenak –neurri prozesalak nahiz substantiboak izan–, gaur egun antzematen diren gabeziak konpontzeko lege- eta administrazio-tresna egokiak abian jartzeko, hain zuzen ere indarkeria sexistaren arazoari erantzun arinagoa eta egokiagoa emateari begira.

e) Indarkeria sexistari buruz hasitako zigor prozedurak, haien zenbatekoa, zigor prozeduraren mota, egotzitako delitu edo falta eta foru administrazioak prozedura horietan izan duen esku-har-

tzea aipatuta, betiere anonimotasunaz baliaturik, ukituriko pertsonen intimitatea errespetatzeko.

f) Erasogileak berregokitzeko aurrera eramandako jarduketak.

Hirugarrena. Indarkeria sexista desagerrarazteko plan integrala.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, indarkeria sexista desagerrarazteko plan integral bat onetsi eta Parlamentura igorriko du.

2. Planak, gutxienez, aplikatuko den aldia, bilatzen dituen helburuak eta ekintza publikoaren arlo ezberdinetan hartu beharreko neurriak jasoko ditu, bai eta hura aurrera eramateko aurreikusitako diru-baliabideak ere.

2. Plana alde aurretik jendaurrean jarriko da, hilabetez gutxienez, profesionalek, eragile sozialek, emakumeen taldeek eta, oro har, generoko indarkeriari aurrea hartu eta hura deuseztatzeko interesa duten pertsona guztiek egoki jotzen dituzten ekarpen eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Legea, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 44.17 artikulua xedatutakarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa bereganatua du gizarte laguntzaren arloan. Horren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legean, gai horretan egin beharreko lehentasunezko jarduketan barruan, bazterutako pertsonen bergizarteratzea bultzatzeko neurri gisa hartzen da. laguntza ekonomikoa.

Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurkako planak ezartzen du oinarritzko errenta egokitu egin behar dela, Nafarroan errenta horretaz baliatzen diren familiek egun dituzten behar eta ezaugarrietara hain zuzen ere, eta pobrezia larrian dauden familia horiei gutxieneko dirusarrera batzuk bermatu behar zaizkie.

Estatuko batez besteko soldatarik altuenetakoa daukagu: 253.000 pezeta. Nafarroan, 26.013 alargun daude 61.349 pezetako batez besteko pentsio batekin; horietan, ehuneko 88k ez du lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen, eta ehuneko 10 besterik ez dago 70.000 eta 100.000 pezetako tartean. Datu horiek argi erakusten dute egoera, eta ezberditasun horiek deuseztatzeko ekintza politikoak lehenbailehen abian jartzea justifikatzen du.

Bestalde, Nafarroan, batez besteko pentsioa, 2001eko uztailaren 1ean, 101.367 pezetakoa zen, eta nabarmena da alde handiak daudela pentsio batzuen eta besteen artean.

Beraz, emakume eta gizon alargunekiko diskriminazioa dago, hala Nafarroan nola Estatu osoan. Gure erkidegoan, diskriminazio hori konpontzerik badago, alargun pentsio gutxienekoei laguntza osagarria emanez, pentsio horiek eta lanbide arteko gutxieneko soldata berdindu arte.

Foru lege honen helburua da alargun pentsio baxuenak hobetzea; bestalde, Nafarroako Parlamentuak behin eta berriz gizarte gaien arloan erakutsi duen kezka erakusgarri da.

1. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

1. Alargun pentsioak jasotzen dituztenen baliabide ekonomikoak ez badira heltzen lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 100era, horretara heltzeko egin arte zenbat behar den, horrenbestekoa izanen da prestazio osagarri honen zenbatekoa.

2. Urtero ezarriko da zenbat diru jasoko duen prestazio osagarri hori jaso behar duen pertsona bakoitzak.

3. Premiazko produktuak eskuratu ahal izateko, prestazioa honela eman ahal izanen da: zuzeneko laguntza gisa eta, modu subsidiarioan, onura fiskal gisa edo "gauzatan", erregelamenduz ezartzen denari jarraikiz.

2. artikulua. Prestazio osagarria eskatu dutenen eta prestazio horren titularraren erantzukizuna.

Interesa duten pertsonak, betiere, eskabidean jartzen dituzten datuen erantzule izanen dira. Nafarroako Gobernuak, emaniko informazioa benetakoa dela egiaztatzeko, datu guztiak begiratuko ditu, berak dituen fitxategiak erabilita.

3. artikulua. Prestazio osagarriaren etetea.

Alargun pentsioaren prestazio osagarria amaitu eginen da, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 100 gainditzen badu alargun pentsioa edo bestelako edozein pentsio jasotzen duen pertsonak.

4. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

Alargun pentsioaren prestazio osagarriari aurre egiteko, kasuan kasuko kontusailaren edo gastu fiskalaren kargura diru kopuruak esleituko dira; hain zuzen ere, foru lege honetako 1. artikuluan ezarritako betebeharreari aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren diru kopuruak.

Azken xedapenak

Lehena. Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat prestatuko du Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legea aldatzeko, alargunen berezitasunei aurre egite aldera.

Bigarrena. Gizarte Ongizate kontseilariari esku ematen zaio foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Foru lege honek 2003ko urtarriaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko ekainaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Foru Legea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legea aldatu eta Tuteran unibertsitate-ikasketak ezartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa jaio izana, bai eta orduan onartu zen unibertsitate eredu bera ere, nafar gizartea modernizatzeko borondate politikoari zor zaio. Unibertsitate publiko baten eginbeharra, ordea, aldiro egokitu behar da, haziz doan gizarte-dinamismoak planteatzen dituen eskari eta beharrianak garatu ahala hain zuzen ere, gizartearen garapenari uneoro modu eragin-garrian laguntzeko, gizartearen zerbitzura dago eta. Jakintzaren gizarte jaioberriak –hartarantz baikoaz– areagotu egiten du, gizartearen garapenerako giltza den aldetik, unibertsitate erakundearen garrantzia. Horregatik da hain garrantzitsua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren plangintza

estrategikoa bat etortzea Foru Komunitateak bere erakunde publikoen bitartez ezartzen duen garapenerako estrategia orokorrarekin.

Gaurko egoeran beharrezkoa da Nafarroak neurriak hartzea oraindik ezkutuan dagoen lurralde- eta sektore-ahalmena sustatu ahal izateko eta gizarte garatuen eta berdinzaleen mailara indartsu heltzeko. Eta hain zuzen ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoak zeregin nabarmena izan dezake eta izan behar du helburu hori lortzerakoan.

Une honetan –hori erakusten dute argiro egindako azterlanek– zeharo bidezkoa da jadanik sustaia bota dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskaintza osatzea eta Nafarroako Erriberaraino eramatea unibertsitatea, titulazioen egungo eskaintza zabalduz, egungo ekonomia-zein gizarte-jardueraren ondorioz eskaera handia duten titulazioetako batzuk –eta hartara aukera profesional zabala eskaintzen dutenak– bertan jarrita.

Horrekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen izpirituarekin bat etorriz –hartan espresuki esaten da haren helburuen artean dagoela “unibertsitatea hedatzea gizarte-bizitzan presente egon dadin”–, ematen du komenigarria dela foru lege horren helburuak erdiesteko neurriak hartzea.

Hori dena aintzat hartuta –eta unibertsitatearen autonomiarekiko eta Nafarroako Parlamentuak unibertsitateko organoei agindu eta onartutako zereginetikiko errespetu osoa aitortuta–, ematen du unibertsitatea sortzeko baliatu zen tresna bera erabili behar dela hartan halako aldaketa bat egiteko.

Xede horretarako, hurrengo bi urteetan unibertsitate-ikasketak ezarriko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikastetxe berezien bitartez eta haietan erantzuna emanen zaie Nafarroako unibertsitate-ikasleen beharrei eta aukera profesionalei.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri bat erantsi zaio Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeari. Hona xedapen horren testua:

“Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren eta Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak horretarako hartuko dituen erabakien esparruan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren bertaratze ikasketa ofizialak ezarriko ditu Tuteran, lehentasunez unibertsitate esko-

laren mailarekin, titulazioen eskaintza osatzeko, Nafarroako gizartearen hezkuntza premiak asetzeko eta eskualde horretako garapen sozioekonomikoa bultzatzeko egokiak direnak.”

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau betearazteko behar adina xedapen eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da Gaztelu Plazako aparkalekuko obra zibila geldiaraz dezan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Iruñeko Udala premiatzen da Gaztelu Plazako aparkalekuko obra zibila geldiaraz dezan".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko ekainaren 27an egindako bileran, foru parlamentari Milagros

Rubio Salvatierra andreak aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2002ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusiaren politika kulturala deitoratzen du

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusiaren politika kulturala deitoratzen du".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko ekainaren 27an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du ETA irmoki gaitzesten duela, eta agertzen du Alderdiei buruzko Legea aldatzeko indar politikoen arteko adostasunik handiena behar dela

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berresten du ETA irmoki gaitzesten duela, eta agertzen du Alderdiei buruzko Legea aldatzeko indar politikoen arteko adostasunik handiena behar dela".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko ekainaren 27an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du indar politiko guztiek eskubidea eta betebeharra daukatela Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean parte hartzeko

BERTAN BEHERA UTZITAKO MOZIOA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du indar politiko guztiek eskubidea eta betebeharra daukatela Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean parte hartzeko".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeko foru parlamentarien faltagatik, mozioa bertan behera utzi dela adierazi zuen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du eskubide eta askatasunen defentsa bermatu egin behar dela

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du eskubide eta askatasunen defentsa bermatu egin behar dela".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko ekainaren 27an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 3ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide eman dezan enbrioi izoztuak enbrioi zelula amak eskuratzeko eta zientzia ikerketak sustatzeko erabiltzeko

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek, eta foru parlamentari milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide eman dezan enbrioi izoztuak enbrioi zelula amak eskuratzeko eta zientzia ikerketak sustatzeko erabiltzeko".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko ekainaren 27an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko maiatzaren 13ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko uztailaren 2an

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko

EBAZPENA, 2002ko ekainaren 10ekoa, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak emana, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko deialdia onesten duena.

Kontuen Ganbarako lehendakariak, 2002ko ekainaren 10ean, EBATZI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko deialdia onestea, ebazpen honi erantsitako oinarriei jarraikiz.

Bigarrena. Deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, bi mila eta biko ekainaren hamarrean. Lehendakaria, Luis Muñoz Garde.

Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko deialdia

Ondoko hauek izanen dira deialdi honen

OINARRIAK

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile lanpostu huts bat oposizio bidez eta txanda irekian betetzea. Kazetari-itzultzaile lanpostuko oinarriko eginkizunak, alde batetik, Kontuen Ganbarako kazetari lanpostuko berberak izanen dira, eta, bestetik, horri gehituko zaio kazetaritzako testuen eta testu juridiko-administratiboen itzulpen lana.

1.2. Izendapenak nomina eta plantillako funtzionario bihurtuko du izendatua, Nafarroako Kontuen Ganbarako funtzionarioei buruz indarra duten xedapenetan adierazitako eskubide eta

betebehar guztiekin eta, zehazki, lanpostu honetarako ezarritako eginkizunak beteko ditu, horien artean ondoko hauek: Nafarroako Kontuen Ganbararen eta komunikabideen arteko harremanak, Nafarroako Kontuen Ganbarako prentsa, argitalpen eta protokolo zerbitzuak eta aipatu diren itzulpen lanak.

1.3. Lanpostua egungo sailkapenaren arabera, A mailakoa da eta horri dagozkion lansariak izanen ditu, bai eta Kontuen Ganbarako indarra duen plantilla organikoan zehazten diren osagarriak ere.

1.4. Izangaia, hautapen probak gaintitu eta deialdi honetako lanpostuan aritzeko izendatu ondoren, Nafarroako Kontuen Ganbaran sartu eta funtzionario eginez gero, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko da eta alta emanen zaio, araubide horretan aurreikusitako babesean.

Deialdi honetako lanposturako izendatu eta lehendik eskubide pasiboen eta osasun eta gizarte laguntzaren araubidean, hots, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainerako xedapen osagarrietan aipatzen den hartan, afiliatuta dagoen funtzionarioak bertan segitzea edo Gizarte Segurantzaren afiliatzea aukera dezake.

1.5. Lanaldia Nafarroako Kontuen Ganbarako organo eskudunek ezartzen dutena izanen da, eta organo horiek aldatu ahalko dute zerbitzuko beharren arabera.

2. oinarria. Izangaien betebeharrak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiak baldintza hauek bete behar dituzte, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Nazionalitate espainiarra edo Europar Batasuneko beste edozein estatutakoa izatea.

b) Adin nagusikoa izatea.

c) Informazio Zientzietako lizentziatu titulua, Kazetari titulua edo Goi Mailako Kazetari titulua izatea, edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko baldintza guztiak betetzea.

d) Euskarako Gaitasun Agiria (E.G.A.) –Goi Zikloa- izatea, edo ofizialki baliokidea den beste tituluren bat.

e) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabetua ez egotea eta Administrazio Publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea.

2.2. Aurreko baldintza horiek deialdi honetako zazpigarren oinarrian ezarri epe eta moduan egiaztatu beharko ditu lanpostua ateratzen duen izangai onartuak, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituela ulertuko da. Halaber, izangaiek 2.1. oinarriko baldintzak hautapen prozedura osoan bete beharko dituzte, izendapena egiten den arte.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Kontuen Ganbarako Erregistro Orokorrean (Ansoleaga kalea, 10, 31001, Iruña) aurkeztu beharko dira, hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak deialdi honetako I. eranskinean ageri den ereduaren arabera izan beharko dira, eta horietan izangaiek adierazi beharko dute ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako.

3.2. Minusbaliatuek ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatu ahalko dituzte, horren beharrik izanez gero. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute zein minusbaliotasun duten eta zein egokitzapen eskatzen duten.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria. Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.2. Izangai baztertuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte eta, akatsik izan bada, zuzendu, behin-behineko zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamar egun baliodunen epean.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko.

4.5. Izangai bazterturik ez badago zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketak.

5.1. Hona hemen epaimahaia osatuko dutenak:

Mahaiburua:

– Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako idazkari nagusia.

Ordezkoa: Francisco José Etayo Salazar jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako legegaria.

Mahaikideak:

– Felipe Rius Saleta jauna, Nafarroako Gobernuako Goi Mailako Kazetari tituluduna, E.G.A. tituluaren jabe.

Ordezkoa: Pedro M^a Pellejero Goñi jauna, Nafarroako Gobernuako Goi Mailako Kazetari tituluduna, E.G.A. tituluaren jabe.

– Carlos Gil Martínez jauna, kazetaria eta Nafarroako Parlamentuko Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko zuzendaria.

Ordezkoa: M^a Antonia Uriz Ayestarán andrea, Nafarroako Gobernuako Goi Mailako Kazetari tituluduna.

– Inma Errea Cleix andrea, Informazio Zientzietako lizentziatua eta Iruñeko Udaleko itzultzailea.

Ordezkoa: Juan José Balerdi Usabiaga jauna, Nafarroako Gobernuako Goi Mailako Kazetari tituluduna, E.G.A. tituluaren jabe.

Mahaikide idazkaria, hitz eta botoarekin:

– Ignacio Cabeza del Salvador jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako auditorea, Nafarroako Kontuen Ganbarako Langileri Batzordeko ordezkaria.

Ordezkoa: Francisco Javier Sesma Masa jauna, Nafarroako Kontuen Ganbarako auditorea, Nafarroako Kontuen Ganbarako Langileri Batzordeko ordezkaria.

Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da.

5.2. Epaimahaiko kideek ezin izanen dute parte hartu, eta halaxe jakinaraziko diote Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariari, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztindako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 28. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo absolutua bildu gabe. Organo kolegiatuaren eraketak balioa izateko, mahaiburua eta idazkaria, edo horien ordezkak elkartu beharko dira.

5.4. Epaimahaiak gehiengo erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egin ahalko die proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira eta haietan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

5.6. Ariketak baloratzean erabateko adostasunik ez badago, epaimahaiak kide bakoitzaren kalifikazio partzialak batuko ditu eta gero kide kopuruaz zatituko. Emandako puntuazioen artean ehuneko berrogeiko edo gehiagoko aldea badago, bakoitzak eman dezakeen gehieneko puntuazioa aintzat hartuta, puntuaziorik altuena eta baxuena automatikoki baztertuko dira eta gainerako kalifikazioen batez besteko puntuazioa aterako da.

5.7. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sortzen diren zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebartziko ditu.

6. oinarria. Oposizioaren garapena.

6.1. Oposizioa 2002ko azaroan hasiko da. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan zehaztuko da probak zein toki, egun eta ordutan hasiko diren. Gero, epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu gainerako probak egiteko iragarkiak, arauzko moduan.

6.2. Oposizioak ariketa hauek izanen ditu:

Lehenbiziko ariketa:

Teorikoa, idatziz azaldu beharko dira, lau orduz gehienez, zozketa bidez ateratako bi gai;

horietako bat gai zerrendaren lehen zatikoa eta bestea bigarren zatikoa.

Bigarren ariketa:

Teorikoa, idatziz azaldu beharko dira, lau orduz gehienez, zozketa bidez ateratako bi gai; horietako bat gai zerrendaren hirugarren zatikoa eta bestea laugarren zatikoa.

Hirugarren ariketa:

Praktikoa, gehienez ere lau orduz, bi kasuri buruz idatzi eta gero epaimahaiaren aurrean ahoz defendatu beharko da. Kasu horiek oposizioko programako gaien inguruak izanen dira, bai eta kanpoko kontrolerako erakunde publiko bateko Komunikazio Kabinete baten jardueren inguruak ere.

Laugarren ariketa:

Itzulpen proba. Gehienez ere lau orduz bi itzulpen ariketa egin beharko dira gaztelaniatik euskara eta euskaratik gaztelaniara. Testuak Nafarroako Kontuen Ganbarako eginkizunen inguruak izanen dira. Izangaiek hiztegia erabili ahalko dute proba hau egiteko.

6.3. Oposizioko ariketen balorazioan 100 puntu eman daitezke gehienez ere, eta honela banatuko dira ariketen arabera:

Lehen ariketa:

Gehienez ere 25 puntu. Gai bakoitzak 12,50 puntu gehienez.

Bigarren ariketa:

Gehienez ere 25 puntu. Gai bakoitzak 12,50 puntu gehienez.

Hirugarren ariketa:

Gehienez ere 25 puntu. Kasu bakoitzak 12,50 puntu gehienez.

Laugarren ariketa:

Gehienez ere 25 puntu. Kasu bakoitzak 12,50 puntu gehienez.

Ariketa bakoitza baztertzailerak izanen da. Hori horrela, baztertu egiten dira ariketaren batean gehieneko puntuazioaren erdia gutxienez lortzen ez duten izangaiek, bai eta edozein gai eta kasutan 0 puntu izaten dutenak ere.

6.4. Izangaiek oposizioko ariketak idatziz garatu eta epaimahaiaren aurrean irakurriko dituzte, jendaurreko ekitaldi batean.

Kasu praktikoak irakurri ondoren, epaimahaikideek egokiak iruditzen zaizkien galderak egin ahalko dizkiete izangaiei, eta gero kalifikatu.

6.5. Epaimahaiak deialdiaren 5.6. oinarrian ezarritako moduan kalifikatuko ditu ariketak.

6.6. Ariketa bakoitza amaitutakoan, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Kontuen Ganbarako iragarki oholean, probak gaintitu dituzten izangaien zerrenda, bakoitzaren kalifikazioekin. Horrez gain, oposizioko hurrengo ariketa non, zein egunetan eta zer ordutan egingen den adierazten duen oharra argitaratuko du, gutxienez hura hasi baino 48 ordu lehenago.

6.7. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak askiesten duen beste nortasun agiriren bat aldean eraman beharko dute. Azaltzen ez diren izangaiek oposiziotik kanpo geldituko dira. Halaber, epaimahaiak ezarritako egunean ariketak irakurtzera agertzen ez direnak ere oposiziotik kanpo utziko dira.

6.8. Hautapen probak egiteko, eskaera egin duten minusbaliatuentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak egingen dira, eska bidean azaldutakoaren arabera.

7.oinarria. Probak gaintitu dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Azkeneko ariketaren kalifikazioa amaiturik, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Kontuen Ganbarako iragarki oholean, probak gaintitu dituztenen zerrenda lortutako puntuazioaren arabera, oposizioko probetan izangai bakoitzak lortutako kalifikazioak baturik.

7.2. Epaimahaiak Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariari igorriko dio oposizioko ariketak gaintitzen dituztenen zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera, bai eta puntu gehien dituen izangaiaren aldeko izendapen proposamena ere.

7.3. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako izangaiek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte Nafarroako Kontuen Ganbarako Erregistro Orokorrean:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen balio bereko agiriarena.

b) Deialdiaren 2. oinarriko c eta d idatz-zatietan eskatutako tituluen fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

c) Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak egindako txostena, karguari dagozkion eginkizunak

betetzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela frogatzen duena.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, minusbaliotasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela adierazten duen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek egina.

d) Zinpeko aitortpena, eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez dagoela eta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik ez dela berezia izan dioena.

e) Zin egite edo promesa, Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela dioena.

7.4. Aipatu epean, eta behar bezala arrazoituta ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta beren jarduketa guztiak baliorik gabe geratuko dira, eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna galarazi gabe.

7.5. Aurreko atalean aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak probak gaintitu dituztenen zerrendan, 7.2 atalean aipatutakoan, hurrengo den izangaiarekin beteko du baja, eta horrekin ere aurreko atalean adierazitako moduan jokatu da.

8. oinarria. Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak, ebazpen baten bitartez, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duen izangaia Nafarroako Kontuen Ganbarako funtzionario izendatuko ditu, kazetari-itzultzaile lanetan aritzeko.

8.2. Izendapena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendatutako izangaiek hilabeteko epean hartu beharko du lanpostuaren jabetza, izendapena jakinarazten denetik aitzina. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, jabetza hartzen ez badu, Nafarroako Kontuen Ganbarako funtzionario izateko eskubide guztiak galduko ditu. Kasu horretan, 7.5 atalean ezarritakoari jarraituko zaio.

9. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, bai eta bere oinarrien eta Kontuen Ganbarako lehendakariak izendapenari buruz hartzen duen erabakiaren aurka, ondoren aipatzen diren errekurtso hauetako bat jarri ahalko da, indarra duen araudiari jarraikiz:

a) Aukerako berraztertze errekurtsoa, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariari zuzen-

dua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Deialdi hau aplikatzeko gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hilabeteko epean. Gora jotzeko errekurtsoaren ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Nafarroako Auzitegi Nagusian.

I. ERANSKINA **Eskabide eredua**

..... J/A-k, adinez nagusia, zenbakiko Nortasun Agiri Nazionala (edo nortasun agiri baliokidea), 19.....(e)ko(a)ren(e)an jaioa,(e)koa (.....),(e)ko nazionalitatea, helbidea(e)n (.....), kaleratua, posta kodea, eta telefona.

Zure aurrean agertu eta honako hau dio:

Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kazetari-itzultzaile baten lanpostua oposizio bidez betetzeko deialdian onartua izatea eskatzen duela.

Karguan aritzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela.

Ez duela indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ezta desgaitua ere eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren bigarren oinarrian adierazitako titulazioaren jabe dela.

Eskabideak aurkezteko emandako epea amaitzen den egunean, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala denean:

Minusbaliotasuna duela, eta horregatik eskatzen duela ondoko egokitzapena, adierazitako arazoengatik. (Beste orrialde batean zehaztuko dira minusbaliotasunaren nondik-norakoak eta eskatzen diren egokitzapenak).

Azaldukoaren ondorioz,

Hauxe eskatzen du: eskabide hau onartu eta Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko kaze-

tari-itzultzaile baten lanpostua oposizio bidez betetzeko deialdian onartua izatea.

Iruñean, 2002ko (a)ren(e)an.

(Sinadura)

II. ERANSKINA **Gai zerrenda**

LEHENENGO ZATIA **Komunikazio gaiak**

1. Komunikazioa eta informazioaren egintza. Kontzeptuak. Masen komunikazioa: teoriak eta eskemak. Informazioaren eginkizun soziala.

2. Informazioaren inguruko zuzenbidea. Informazioaren egintzaren ondorio juridikoak. Komunikabideei buruzko legeria. Erantzun eta zuzentzeko eskubidea.

3. Informaziorako eskubidea. Informaziorako eskubidearen subjektua eta objektua. Informazio eta iritziak ikertu, zabaldu eta jasotzeko eskubidea.

4. Informazioa eta giza eskubideak. Ohorea, intimitatea eta norberaren irudia errespetatzeko eskubidea. Printzipioak eta mugak. Legezko araubidea.

5. Informatzaileen eskubideak. Informatzaileen askatasuna eta erantzukizuna. Kontzientziaklausula eta sekretu profesionala.

6. Informazioaren deontologia. Informazioa eta egia. Objektibitatearen kontzeptua. Informazioaren egiazkotasuna eta arau hori haustea. Kode deontologikoak.

7. Iritzi publikoa. Definizioa eta ebaluatzeko metodoak. Ezaugarriak, erabilera eta iritzi-azterketen lege esparrua.

8. Kazetaritza idatziaren generoak. Informazioa, kronika, erreportajea, elkarrizketa, etab.

9. Ikus-entzunezko informazioaren teknikak. Ezaugarriak. Teknikak. Bilakaera.

10. Eguneroko prentsa. Jatorria eta egungo egoera. Munduko eta Espainiako eguneroko prentsa ezaugarriak. Azken berrikuntzak. Hedapena. Aurreikuspenak.

11. Egunerokoa ez den prentsa. Bilakaera eta egungo egoera. Munduko eta Espainiako egoeraren ezaugarriak. Argitalpen berezituak.

12. Irratia. Komunikabide horren bilakaera eta gaur egungo egoera, munduan eta Espainian.

Eduki informatiboak. Irrati-entzuleak. Aurreikuspenak.

13. Telebista. Komunikabide honen bilakaera eta gaur egungo egoera, munduan eta Espainian. Eduki informatiboak. Teleikusleak eta audientziak.

14. Berri agentziak. Nazioarteko agentziak. Espainiako agentziak, gai orokorretakoak eta berezietakoak. Aurreikuspenak.

15. Erakundeen publizitatea. Espainiako erakunde eta enpresa publikoen jardura publizitariora. Helburuak eta erabiltzen diren baliabideak. Alderdi ekonomikoak.

16. Erakunde publikoen komunikazio kabineteak. Helburu eta eginkizunak. Erabiltzen diren baliabideak. Espainiako erakundeetan nola ezarri diren.

17. Komunikazioaren inguruko aholkularitza eta irudi enpresak. Ematen dituzten zerbitzuak. Espainian eta atzerrian nola ezarri diren.

18. Informazio enpresak. Komunikabideen inplikazio ekonomikoak. Multimedia enpresak. Komunikabide garrantzitsuenen jabetza Espainian.

19. Harreman publikoak. Komunikazioaren prozesuekiko harremana. Erakunde publikoetan eta entitate pribatuetan duten tokia.

20. Irudi korporatiboa eta diseinua: irudi korporatiboa, sinbologiaren ikuspegitik. Erabilera eta aplikazioak. Diseinu grafikoaren eginkizuna komunikabideetan. Elebitasuna sinbolo grafikoetan.

21. Informazioaren dokumentazioa. Kontzeptua. Dokumentazio zentro baten eginkizunak eta antolamendua. Azterketa eta lengoia dokumentalak. Informazio eta dokumentazio arloko punta-ko teknologiak eta euskarri berriak.

22. Informazioaren teknologiak. Bilakaera, gaur egungo egoera eta aurreikuspenak.

BIGARREN ZATIA

Gai orokorrak eta fondo publikoen kontrolari buruzkoak

1. Espainiako konstituzioa. Oinarrizko edukia eta konstituzioaren printzipioak. Aldarrikatzen dituen funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak.

2. Koroa. Erregeak konstituzioaren arabera dituen eginkizunak. Erregearen botereak. Gobernuarekiko eta Gorteekiko harremanak. Berrespina. Ondorengotza. Erregeordetza.

3. Gorte nagusiak. Diputatuen kongresua. Senatua. Eraketa eta funtzionamendua.

4. Konstituzioaren defentsa juridikoa. Konstituzio Epaitegia. Osaera, izaera eta eginkizunak. Botere judiziala: organoak eta prozedurak.

5. Espainiako gobernua. Antolaketa. Gobernuo presidentea eta presidenteordea. Ministroen Kontseilua. Ministerioen antolaketa.

6. Estatuko administrazio zentrala. Antolamendua eta eginkizunak. Dirusarrerak eta gastuak. Defentsa eta segurtasuna. Inguruko organoak.

7. Justizia administrazioa. Konstituzioaren araberako eginkizunak. Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra. Beste organo batzuk.

8. Estatuaren lurralde antolaketa: autonomia erkidegoak. Espainiako estatuaren izaera, lurralde banaketaren ikuspegitik. Autonomi erkidegoen ekinbidea.

9. Autonomia estatutuak. Izaera. Ezaugarriak. Edukia. Prestatu eta aldatzeko prozedurak.

10. Administrazio zentralaren eta autonomia erkidegoen arteko harremanak. Eskumenen banaketa. Legegintzarako ahalmena.

11. Espainiako ekonomia. Garapenerako dinamika. Ekoizpen sektoreak. Indize ekonomikoak. Aberastasunaren banaketa. Europako Batasuneko beste herrialde batzuekin alderatzea.

12. Espainiako hauteskunde sistema. Hauteskundeetarako gaitasun pasibo eta aktiboa. Hauteskunde administrazioa. Hauteskunde orokorretarako deialdia. Hauteskundeetako kanpaina. Kongresurako eta Senaturako erabiltzen den hauteskunde sistema. Hauteskunde prozedura.

13. Elebitasuna gizartean. Gizarte elebidunak. Normalizatorako politikak. Elebitasuna Espainian.

14. Kudeaketa publikoaren kontrola gizarte demokratikoetan: barne eta kanpo kontrola.

15. Kontrol publikoaren egungo joerak. Aurreikuspenak.

16. Kudeaketa publikoaren kontrola Espainian: Kontuen Epaitegia. Antolaketa eta eginkizunak.

17. Kontuen Epaitegia eta kanpoko kontrolerako organo autonomikoak. Eskumenak eta harremanak.

18. Fondo publikoen kanpoko kontrola egiten duten erakundearen egitura: organo kolegiatuak eta pertsona bakarreko organoak, beren arteko diferentziak.

19. Kontuen Epaitegiak eta botere legegilearekin eta exekutiboarekin dituzten harremanak.

20. Kanpoko kontrolerako organoek egiten duten lana. Sektore publikoaren auditoriako printzipio eta arauak.

21. Fondo publikoen kontrola eta gizartea. Lan fiskalizatzailearen komunikazioa. Gardentasuna fondo publikoen kudeaketan.

22. Europako Batasuneko Zuzenbidea: kontzeptua, ezaugarriak. Iturriak: jatorrizko zuzenbidea eta zuzenbide eratorria.

23. Europako Batasunaren antolamendua. Batzordea. Parlamentua. Kontseilua. Auzitegia. Eskualdeen Batzarra. Bakoitzaren osaera, eginkizunak eta eskumenak. Haien erabakien ondorioak.

24. Europako Kontuen Epaitegia. Osaera, eginkizunak eta eskumenak. Estatueta eta eskualdeetako kontuen epaitegiekin dituen harremanak.

HIRUGARREN ZATIA **Nafarroari buruzko gai orokorrak**

1. Nafarroa XVI. mendera arte. Erreinuaren sorrera eta eraketa.

2. Nafarroa Gaztelako Koroan sartzea: historia, izaera juridikoa eta ondorioak. Kultura eta gizartea.

3. XIX. mendeko gertakari politikoak. Lege Itundua: inguruabarrak eta ondorioak. Karlistadak. Pertsonaiak.

4. Nafarroa XX. mendean. Mende horretako lehen hereneko jardura politikoa eta gizarte egoera. Estatutuen inguruko planteamenduak. Bigarren Errepublika. Gerra zibila 1936-1939. Nafarroa frankismo garaian. Industriaren bilakaera eta krisia.

5. Trantsizio politikoa Nafarroan. 1973tik 1984ra bitarteko gertakari politiko eta sozialak. Alderdi eta koalizio politikoaren bilakaera. Hauteskundeen emaitzak.

6. Azken urteotako Foru Komunitatearen historia. Nafarroako gertakari publikoak 1984. urtetik aurrera. Hauteskundeen emaitzak.

7. Nafarroako geografia. Lurraldearen banaketa geografikoa. Klima. Lurraren erabilera. Biztanleria.

8. Nafarroako hiri sarea. Iruñeko eta Iruñerriko hirigintza bilakaera. Beste hirigune batzuk. Hirigintza planeamenduaren egungo egoera.

9. Nafarroako egitura ekonomikoa. Ezaugarriak. Indize ekonomikoak. Finantza sistema. Barruko eta kanpoko merkataritza.

10. Lehen sektorea. Bilakaera eta ekoizpen faktoreak. Aurreikuspenak.

11. Industri sektorea. Nafarroako industri egituraren bilakaera. Ezaugarriak. Azpisektore garrantzitsuenak. Azpiegitura. Aurreikuspenak.

12. Zerbitzuen sektorea. Sektore horren ezaugarriak eta bilakaera. Azpisektoreak. Aurreikuspenak.

13. Foru Komunitateko sektore publikoa. Foru Administrazioaren egitura. Erakunde autonomoak eta enpresa publikoak. Haien jardura ekonomiko-finantzarioaren kontrola.

14. Nafarroako toki entitateen sektorea. Oinarritako araudia. Egitura. Udalak, kontzejuak eta gainerako toki entitateak. Haien jardura ekonomiko-finantzarioaren kontrola.

15. Nafarroako osasun sistema. Oinarrizko osasun laguntza. Ospitale sistema. Zonifikazioa. Prebentzio neurriak.

16. Nafarroako hezkuntza sistema. Mailak eta ereduak. Unibertsitateko ikasketak. Ikerkuntza. Helduen prestakuntza.

17. Nafarroako kultur ondarea. Ondare historiko-artistikoa. Ezaugarriak. Zainketa eta erabilera. Donejakue bidea Nafarroan. Azalpena; kultur eragina.

18. Kontuen Ganbararen egoitza historikoa: Iruñeko Ansoleaga kaleko eraikina. Estiloa eta berezitasunak.

19. Gaur egungo kultura eta artea. Literatura. Musika. Pintura. Arkitektura. Beste arte batzuk. Nafarroako kulturaren inguruko erakunde eta pertsona ospetsuak XX. mendean.

20. Euskal kultura. Euskal kulturaren ondarea Nafarroan. Euskarari buruzko legezko xedapenak. Hezkuntzako hizkuntz ereduak. Zonifikazioa. Euskarak Nafarroan gaur egun duen egoera.

21. Euskarazko itzulpenaren historia eta literaturarekin duen erlazioa. Itzulpena eta literatura euskararen historian. Euskaratik eta euskarara egiten diren itzulpenen egungo egoera.

22. Nafarroako komunikabideak (I). Sorrera eta garapena. Enpresa egitura. Eduki informatiboak.

23. Nafarroako komunikabideak (II). Biztanleen erabilera ohiturak. Egunkari, irrati eta telebisten hedadura.

LAUGARREN ZATIA

Nafarroako erakundeak

1. Foru araubidea. Foruaren kontzeptuaren adiera historikoak. Ituna, Nafarroako Foruen oinarri. Historian izan diren foru-itunen azterketa.

2. Nafarroako erakundeak 1979ra arte. Erreinu independentearen erakundeak. Erreinu konstituzio araubidea: Gorteak; Erregeordea eta Errege Kontseilua; Erreinu Diputazioa. Foru Diputazioa. Foru Administrazio Kontseilua.

3. 1979ko urtarrilaren 26ko Errege Dekretua. Lantzeko prozesua. Foru Parlamentua: osaera, hautapena, eskurantzak eta jarduketa garrantzitsuenak. Foru Diputazioa: osaera, hautapena eta eskurantzak.

4. Foru hobetzea (I). Sorrera eta oinarrien lan-keta prozesua. Negoziazio prozesua. Itun izaera. Atariko Tituluan biltzen diren printzipioak.

5. Foru hobetzea (II). Nafarroaren ahalmen eta eskumenak. Aginteak. Eskumen motak. Justizia Administrazioa. Estatuarekiko eta autonomia erkidegoekiko harremanak.

6. Parlamentua edo Nafarroako Gorteak. Egin-kizunak. Osaera. Erregelamendua eta barne gobernua. Funtzionamendua. Kontuen Ganbara. Legegintzarako biztanleek eta udalek sustaturiko ekinbideak.

7. Nafarroako Gobernua. Gobernuo lehendakaria: hautapena, eginkizunak, erantzukizuna. Kontseilariak: izendapena, eginkizunak, erantzukizuna. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen Foru Legea.

8. Foru Komunitateko lege xedapenak. Foru Legeak: onesteko eta aldarrikatzeko ekinbidea eta izapidea. Foru Dekretuak. Parlamentuak 1983az geroztik onesteko lege garrantzitsuenak.

9. Nafarroako Kontuen Ganbara: aurrekariak. Sorrera eta bilakaera Nafarroako Erreinuaren garaian. Indargabetzea.

10. Kontuen Ganbararen berrezarpena. 1979ko Errege Dekretua. Berrezartzeari buruzko 1980ko Foru Araua. Foru Hobetzean bildutako arauak.

11. Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen 1984ko Foru Legea: antolaketa eta eginkizunak. Kanpoko kontrolerako beste organo batzuen aldean dituen berezitasunak.

12. Kontuen Ganbarak Foru Komunitateko botere legegilearekin eta exekutiboarekin eta

beste erakundeekin dituen harremanak. Kontuen Ganbara eta Nafarroako toki entitateak.

13. Kontuen Ganbarak Kontuen Epaitegiarekin eta kanpoko kontrolerako gainerako organoekin dituen harremanak.

14. Kontuen Ganbarako txostenak. Txostenak egiteko prozesua. Txosten motak. Gomendioak.

15. Kontuen Ganbara eta bere lanaren berri ematea. Txostenen berri ematea. Komunikabideekin dituen harremanak.

16. Nafarroako Kontseilua: sorrera, araudia eta eginkizunak.

17. Arartekoa: sorrera, araudia eta eginkizunak.

18. Hauteskundeetako legeria. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak. Udal hauteskundeak. Kontzejuetako hauteskundeak. Horietako bakoitzerako deia eta aplikatu beharreko legeria.

19. Estatuarekin egiten diren hitzarmen ekonomikoak. Jatorria. Izaera. Beste autonomia erkidego batzuen finantza sistemarekin dauden diferentziak eta antzekotasunak. Indarra duen hitzarmen ekonomikoa: edukia eta berritasunak.


20. Foru Komunitateko aurrekontuei buruzko arauak. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea eta aurrekontuen legeak. Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea egin eta onesteko prozesua. Aurrekontu exekuzioa. Kontu-hartzailtza. Kontu Orokorrak.

21. Kontratazio administratiboaren araudia. Nafarroaren eskumenak. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Legea. Oinarri izan diren printzipioak, egituraren eta edukiaren azalpen laburra.

22. Foru Komunitateko funtzio publikoa. Nafarroaren eskumenak. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua. Edukiaren azalpen laburra. Erregelamendu bidezko garapena.

23. Nafarroako sinbologia eta zeremoniala. Nafarroako ikurrak: legezko araudia. Agintarien arteko mailaketa. Erakundeetako festak. Elebitasuna sinbologia ofizialean.

24. Irrati-hedapenaren eta telebistaren araubidea. Nafarroako eskumenak. FM emisoreen adjudikazioari buruzko araudia. Udal irrati-emisoreak. Tokiko telebista-emisoreak.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	